EGUNA

Lgo. urtia | 57'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. epailla 7'gna. igandea | 15 eunen

Eŕi batek bere izkuntzea galdu ba-dai, beste eŕi baten jopu egin dalako izango da.-Eta ik, jopu dan eŕiaren semea izan nai dok?

AZKENENGO IZPARRAK

Paxistak baŕiro asi dira Valencia'ko bidea ebagi gureaz, baña lepoko edeŕa artu dabe

Eŕi baketsuak suagatuten.-Budapest'en zarata ta nasteak. Motril inguratuten.-Madrid-eguna. - Beste izpaŕak.

MADRID'EN INGURUTAN

Madrid. — Erdi-aldeko gudaketak baŕiz asi dira euren indaŕian. Uri onduan arerijuak ebazan guda-tresna gustijak eruan ebazan Jarama ingurura, bertan Valencia'gaz artu-emonak ebagiteko uzteaz.

El Pardo ingurua ixan egunotan geyen jokatu dan guda-oña. Bertara eruan ebezan arerijuak euran alegin gustijak, eta beŕogeta zortzi ordu onetan bera ixanda gogoŕen gudatu dan ingurua.

Ze ixan dabe arerijuak gudaketa onetan...? Ixan biaŕ ebena. Zigoŕ edeta. Bein geyago ikusi dabe arerijuak Madrid'egaz ezertxube al eztabena. Onek ixan daben zigoŕian makiñatxu bat betuta ixan dabez.

Ciudad Universitaria'n arerijuak dabezan azkenengo taldiak emoten dautse oneri zeŕ egiñik aundijena. Onek oso txaŕto aurkituten dira. Janarijak eta berunbilak eruatia oso gatx egiten jake eta onek ixan dabezan betutak ikaragaŕizkuak ixan dira.

Moncloa'ko guda-oñetan aspaldijan atseden aldija ixan dan aŕen, asi da emen be, gudatuten.

Arerijuak Chamartin'etik apurtu gura dauz artu-emonak baña alpeŕik diardube. Guzuŕal dala esan legike ikusi aŕen Madrid aŕizia alpeŕikua dana argi ikusi aŕen onek darabilen alegin utsa auŕera eruaten. Jarama -ingurutan ostera ezta ixan ezetariko gudaketarik. Morata ta Tajuña aldian ixan dira bertako oldarketa indar gabe batzuk.

AMABOST ATXILOTU

Eŕizaliak egin dako oldarketa kamenisu baten 15 prisioneru egin yakazan arerijuari El Pardo inguruan. Prisioneruŕ onen artian Marañon'en seme bat aurkituten da. Ikusten danez alferez aginpidiaz ointzu arerijuan gudaroztera juandakua da.

EŔIAK SUAGATZEN

Barcelona.—Gauŕ goizean suagaketako egazkin bik Palamos ta San Feliu de Guixosl suagatu dabez.

Palamos'en ikastolea suagatzeko asmoa eben paxistok, baiña umeak atara egin ziran. Suagalari-agintari bat il eben.

San Feliu de Guixols'en suagak galtzerik ez eben egin.

Aŕatsaldeko ordu bat eta laurenetan beste iru egazkin agertu ziran Palamos'en. Paxistenak ziran.

Adaŕak jo ebezan eta egazkin-kaltezko kañoiak, be, asi ziran. Suaga batzuk jaurti ostean Ipaŕ-Alderantz iges egin egazkiñok.

MADRID'EN ALDE

Barcelona.—Madrid'en emonez jai ospatsua egingo da gauŕ Barcelona'n Generalitat'ko Eresbatza, be, izango da jai oŕetan.

ZABALKUNDE-ONDORENAK

Budapest.—Nazitaŕen Zabalkundea bide atzo uriburu onetan izan ziran buŕekeei buruz jardun aundiak doguz izpaŕingietan.

Nazitaŕen-alde auŕerantzean zabalkunderik egiterik ez da lakeluko Gobernu-Buruak esan dauanez.

ALDUN BAT ZAURI-ZAURITU EGINDA

Murcia.—Morata'tik belbilean etoŕala, zozialista aldun eta karabiñeruen osagile-kapitan dan Luis Prieto belbila itzuldi ta zauri-zauritu egin zan. Villa Robledo'ko Gaixoetxean'n osatebakuntza egin eutsen, baiña ilgo ete dau bilduŕa dago.

EGOALDEAN EŔI-ALDEZLEAK AUŔERA

Almeria.—Malaga'ko probintzi egaletan auŕera duaz eŕi-aldezelak. Len baiño guda-toki obeak daukez ta Orjiva uria esi-baŕututa dago.

Gudari-talde batzuk bitaŕtea egin dabe ta Motril'eruntz duaz. Motril'en dauke areriuok guda-oiñetako Gudaletxe Nagusia.

Luŕalde onetan, be, eurits aundia dogu ta euriak auŕerakadak asko erazgozten dauz.

Malaga'tik iges egindako bost gudari eldu dira mendi gurtiak igaro ostean eŕi-aldezleen gana.

Paxistaŕen zapukeriak. - Ezetarako balio eztaben aintziñeko diru zaŕakaz atzipetuten dabez, maŕuekotar gudariak.



Emen jaŕten dogun argazkian ikusten dan diru papelak eztaula balio ezetako edonok dakian gauzea da. Baña paxistaŕ kapuŕ alenak, oŕeixekin atzipetu daroez, marruekoetan baturik eurak gura daben españaŕ luŕaldietara daroezan moro gizajuak. Moro oneitako bateri auŕkitu eutsen diru ori Asturias aldian.

Biotz gogoŕ ta ankera biaŕ da, euren aberŕitik azpikeriz atarariko mutil giseneri giño oŕetako salkeria egiteko. Paxistaŕak baña, olakosiak dira-eta esango gara aŕitu.

MIAJA GUDA-OIÑETAN-ZEAŔ

Madrid.—Goizean atera zan Madrid'tik bere agindupean dagozan guda-oiñak ikusteko-asmoz.

Aŕatsalde-beranduan biurtu zan Madrid'era.

ZABALKUNDERAKO DIRUA

Barcelona.—Generalitat'eko lendakaritza lauŕlekon dirutza zabaltzeko agiriri bat argitaldu dau. Txinditzau, zabalkunderako ixango da.

ERKALDAŔAK AUŔERAKA

Almeria. — Eŕizalien auŕerakadiak edeŕto duaz Granada ganeruntz. Motril ganian keyek kenduten dabez. Gauŕ arerijuen artetik anka egindakok bi gudari aurkeztu dira.

GURE ITXASOETAN

"Canarias"en aurka gure itxasontzi txikiak. Aintzaz bete ziran arañegun.

Guda zaingoaren agiria

Euzko Gobernua'ren ontziak gaŕantidun arazoa erabilen ilaren 4'tik.

Atzo goizean euren ondoan "Canarias" agertu zan, eurak zaindu nai ebena atrapateko asmoz.

Oneik, areri bere asmoak beteten laga baño len, arpegi emotea nai izan eben.

Amaika ta erdiak inguruan kañoi suagak alkaŕi jaurtiten asi ziran. "Canarias,,'ek bou bateri Matxitxako gaŕaño jaŕaitu eutson, baña itxasertzeko kañoiak suagako asi yakozanian iges egin eban.

Ateuna Bilbao'n sartu zan, zoritxaŕa eroan eutsen tiro bik jo ebenaŕen.

Bitaŕtean beste ontziak arpegi emoten jaŕaitu eben eta euretariko batek "Jorkbroock" ontziaz jaubertutea lortu eban. Ontzi au "Canarias,,'ek eroan Pasai'ra, armaz beterik. Eta kapitana ukatu aŕen, "Canarias,,'ek galerazo izan ai oŕduko, gure portu batera eroan eban.

Ori dala ta, zaindu nai ziran ontziak gure portuetan sartu ziran, eurak ekaŕezan kargakaz.

Ateun bat itxasoan ondatu zan, aintzaz beterik. Bestea frantzetaŕ uretan sartu ziran.

"Canarias,,'ek Pasai'ra joyala "Galdames" atrapau eban, Bayona'tik Bilbao'ra jenteaz etoŕala.

* * *

Izpaŕ bereiziak diñoskuenez, gutaŕak atrapau eben ontziak, guda-gai ta izkilua ugari dakaŕ. Egazkiñen eun kiloko bonbak milaka, pusilak, izkilazkaŕak eta eurentzako balak miloika, pusilak, izkilazkaŕak eta eurentzako balak mioika. Aŕantzu edeŕa egin dabe oinguan, gure mutilok.

España'ko auzia ta Italia

Gudea irabazteko azkenengo ekiñaldia oraintxe asiko ei dau Franco'k

Roma.—Gobernuak guzurpetu daunaŕen, izpaŕlari batek Paxista-Alderdi'ko-Idazkari izan zan eta paxista-burutik urtenenetariko dau Roberto Farinacci aldunak, asteartez egazkiñez iñori ezer adierasoteka urten ebala idatzi dau.

A telen gabaz Paxista Batzaŕ Nagusia'n egon ei-zan eta asteartez España'ko porturen batera zuzendu ei -zan. Egubaztenez Paxista-Batzaŕean es i n izan gaiñera.

Gobernukoak eta beste agintariak atzo Farinacci'ren baŕirik ez eukela iñuenaŕen, España'n ba-egon, gudari letz ezetz, ostingo edozein egon daiken moduan baiño esan eben. Gudari ezin izan ei daike Abisinia'ko gudatean eskua galdu eban eta.

Jakin-nai aundia sortu dau Farinacci'ren ostereak agintari ta diplomati ku-artean, Franco gudalburua gudearen goibea erabagiteko asmoa joaldi gutsu ta aundia gertetan ei-dago-ta.

Mussolini'k eta Hermann Goering'ek Roma'n artu ebezan erabagiak betiaz, gudea trabazteko azkenengo ekiñaldia oraintxe asiko ei dau Franco'k.

Italia'ko Paxista-Batzaŕ Nagusia'n astelenez onartu eben zorion-agura ta españaŕ asaldarien asmoei italiaŕak dagitsoen oneritxia ekaŕi ei-dauz.

Eta España'n dagon artean Franco'ren Gudaletxe Nagusia'n egongo ei -da asaldari-agintariekin artuemonok eratzago egin dagizan.

"EUZKADI" EGAZKIN ALDE

GAUŔ EUSKALDUNA'N

Jokaldi edeŕak

Lenengua, palaz:

Oŕantia eta Somoŕostro, gorijak, Arnaitz Txiki eta Pasai, oztiñak, auŕka.

Bigaŕena, eremontez:

III Abrego eta Idiazabal, gorijak, II Lafañaga, Lesaka eta Amenabar'en, oztiñak, auŕka.

Saneuŕijak:

Be-aulkijak, 2 laurleko; gor-aulkijak, 3; txeiguak, 1.

Argentinar ordezkari beŕi bat Valencia'n

Buenos Aires.—Enbajadako Arduradun Cuegal jauna, Valencia'rako Argentina'ko Erkal-ordezkari, gaiñera, autatu dutela diote.

Marruecos'en

Frantzetaŕak egin daikien erasotik zaindu nai Franco'k

Gora-goraka diardue

Paris. — España'ren mende dagoan Marruecos bastaŕetan Prantzia'k bakea zaintzeko aikikuluz españaŕ Marruecos'en aurka erasoren bat asteko asmoa daukala ei-difiue aspaldiko egunotan Marruecos'en oŕ egon dan prantzetaŕ izpaŕlari ospatsu batek adierazo dabenez.

Zuŕumuru miragaŕi oneik gudari -agintariak eta eritaŕak oso-osorik siñesten dabezala diño.

Iratizkiñez Franco berberak arañegun Algeciras'en batzaŕ bat egiteko asmoa eukala adieraso eban. Batzaŕoi "españaŕen agindupean dagon Marruecos saila, prantzetaŕen prantzetaŕak egin daikuen erasotik zaintzearen ei da".

Franco'ren asmooi oindiñokaŕen Gobernua'ren asmo letz ez da agertu. Prantzia'ko Erbeste-arazo Zaingo'n asmo ori dala-ta deirik ez dabe artu. Baiña Franco'ren deirik ezin onartu daikie, olako deiak Gobernua'k egin daikez ta España'ko Gobernu jatoŕ bakaŕik Valencia'kua onartzen dabe.

Prantzetaŕ izpaŕlari batek diñonez españaŕen mende dagon Marruecos -saiñakoak zuŕumuŕuaren-zuŕumuŕuz ta eragozpenen-eragozpenez gora-goraka ei-dabiltz ta gora-gorakok prantzetaŕen sailetara, be, zabaldu ei-dira.

Gora-goraka gusti onein ituŕi komunisten-zabalkunde-a esten ei-dabe Marruecos'en. Zabalkundeoi geitu egin ei-da asteeton.

Islandaŕak euron buru etaŕ dabe Franco ta moruok oŕek asko aŕotu dauz. Alah islandaren jainko-guzuŕezkoaren izenez España menderatu beaŕ dabela diñotsoe ta siñestu egin dabe.

Prantzia'ren Marruecos'ko Agintari -Orde ta ango gudarien Gudalburu Nagusi dau August Nogues'ek Leon Blum eta Gobernu'ko beste batzuekin jardunaldi gaŕantzitsuak egin dauz.

Gure adizkideak

"Eguna"ri laguntzen

"Otxandiano" gudaloroko Alberdi guda-salak bialduta diru mordo bat aŕtu dogu EGUNA'ren alde aŕpide bat zabaldu dabe gudari eŕimiok. Guda oñetan adizkidiak doguzala jakiteak poz eta alaitasun ugari emon dausku. Eta lanerako gogo eta indaŕa.

Azkatasunaren alde diarduen gudariak euzkerarik eztabela aztuten adierazoten dausku emokuntza edeŕ eta txalogaŕi oŕek. Guk biotz-biotzez aŕtu dogu eta gudari gustiak beste ainbeste egingo daben itxaropena dogu. Alberdi guda-salak bidia zabaldu dautse. Eta eurak jaŕaituko daben ustea dogu. Gure aldetik eskeŕik beroenak Alberdi'k, gudari euzkeltzaliei eta zerjonik sutsuenak euzkera alde ain zindoki jokatzen dakiejako, arerioak euzkera au betiko ixildu eta bastertu gura da ben aldi onetan.

Ara emen EGUNA'ren adizkide diran gudarien ixenak:

Lafazabal'taŕ Matai, Trueba'taŕ Bitor, "Txeru", Tirilo'taŕ Toma, Lafañaga'taŕ Iñaki, Uarte'taŕ Efapel, Otegi'taŕ Alexander, Bikaŕegi'taŕ Anastasi, Auŕekoetxea'taŕ Koldobika, Bedialauneta'taŕ Joseba, Bengoa'taŕ Joseba Koldobika, Agra'taŕ Jon, "Tronpeti", Landaluze'taŕ Saturnin, Agurmendi'taŕ Julen, Garamendi'taŕ Koldobika, Gilamon'daŕ Jon, Gorostizaga'taŕ Jesu, Bakotxak, 5 laurleko. Azurmendi'taŕ Julen, 2,50. Guztira: 87,50.

Españar gudea erbestean

Paxistaŕak guda-taldeak batzen, baña ezer eztabe lortuko

"New York Herald Tribune"ren izpaŕak

Madrid.—El Escorial'eko bide-txabal eta ostontzeko guda-oiñetan arerioak egin dituan erasoak, erkaldaren indaŕak neurtzeko egin dituzte. An, or, leku guztietan erasoka jardun dute, utsunea non aurkituko, gero bertatik buru ta biotz ekiteko.

Miaja buruzagiak badu oren beŕi. Arerioa eraso gogoŕka asteko, utsune -bila dabilena badaki.

Atzo gabeko izpaŕak diotenez, paxiotaŕak gudari-taldeak batzen diardute. Argi ta garbi darakusgute utsune makalenetik Madrid'eri azken-erasoa eman nai diotena. Aste batzuetan, eraso ori Morata inguruan izango zanen uztea gendukaŕi: Madrid'ko gorabera erabakitzeko ez bait dago leku egokiagoŕik. Erkaldaŕak baiña ziaro gogoŕtu ta indaŕtu dute Jarama-inguruko guda-oin ori eta, Franco aurŕak berak egingo ditu beste alde batetik asteko alegiñak.

Paxistaŕak utsuneak bilatzeko egin oi dituzten erasoak gaŕantzi aundie dute erkaldarentzat. Gogoŕago lotzen dira ordusn eta beste baterako ere afetatsuago jokatu.

Azkenengo egunotan emengo izpaŕak zjotenen aurka, erkaldaŕak eŕ diŕala saŕtu Toledo'ra esan du Gobernuak. Guda-jokeratzako egoki dala Toledo-inguruak aŕtzea, baiña, ez urla bera. Guda-Zaingoak oŕixe esan nuan: Toledo'ra ez dirala saŕtu, baiña, bai Toledo'tik bi miŕaz baiño uŕeago dagon Cigarreles.



BILBAO ORAIN BERO GETA AMAR URTE

BILBAO'KO izparringijak diñuena

"Euzkadi"

"Nuestra fe nos ha salvado." Arakil'daf Luki'ren idazlanaren ixenpuruba da au: Geure zinismenak gaizkatu gauz.

Eta itzoik, Goiko-Jaunagan zinismen osua daukan emakume bijoztun batek idatzijak e-dira.

Gure eri txiki au, ba, areyuaren eraspian gixaldijak-gixaldi dirauan aren, Goiko-Jauna'ren eskubak arduratsu zaindu ixan ei dau. Eta ordez, ludi osua dardaganian jarteko gai ixan diran bakalderi altsubak-eta, egun batetik besterako ekaitz gogor baten menpe jausita betiko deue zestuta geratu ixan ei dira.

Eta Goiko Jauna'k alatzez zaindu ta aldeztu ixan daben efi mate au, orain paxiotaren menpe jausita betiko galtzekotan ez ebala zaindu ixango uste dau. Edo obeto esateko, oraingo ariskutik be, orain arte zaindu ixan daben eskubak zaindu ta aldeztuko dabela zinistuten dau.

Euzkotafak benetako zinismendunak e-gara. Eta benetako zinismendunak garaiko, zinismenaren kabitxuba dala dirudijan Euzkadi gure aberijaren zorijona be, Goiko Jauna'ren azken bako zuzentasunian itxaroten ei-dogu.

Eta gure egizko zinismena bide dala ta zinismen ofi geure laguntzarik zintzuena lagun damotsagula, paxiotafak sortu ixan daben ekaitz audi onetatik be, Euskadi osuan gaizkatuko ei da. Beraz, guda onetatik be, geure zinismenak gaizkatuko gauz.

"Tierra Vasca"

"El arma que más les hiere." Ixenpuru onegaz asten dau lenengo idazlana.

Eta geyen zaurituten dabezan izkilu ori ez da besterik, eurak paxiotafak egin ixan dabezan erailketa iguinga'ijen izpafa ludi ziara edatuta ikustia baño.

Paxiotafak egin ixan dabezan erailketak ixugafijal. dira, ba. Eta batez be, Malaga'ra saftu ziranetik asiña efi-alde aretan egin ixan dabezanak, neufitik atzkuak.

Ori dala ta, eurak egin ixan dabezan erailketa iguingafijakaz iguinduta dagozlako-edo Malaga'n jazo ixan danik iz pafingijetara-eta zabalduterik ez dabe gura.

Eurak egiten dabezan basatikerijakaz lotsatuta bixi dira paxiotafak. Eta egin ixan dabezan basatikerijai ganera lufa botateko, paxiotzia ez dan gustija erail egiten dabe. Bai dakije, ta ondo jakin be, eurak aginpidia loftu ixan daben efijetan orain afte irabazi ixan daben efitaren gorotua ixan dala. Eta beste au be b-lakije: gurendari urtengo ba'lira be, zigorez aulduta laga ixan daben efija euren auflka jagiko litzakijuena.

Erailketa asko egin ixan dabe. basatikeri geyegi agirijan imiñi. Eta orain bilduf dira, erailketa eta basatikeri ofeik ludi-ziaf edatuko ete-dabezen bilduf..

"Lan-Deya"

"Salario familiar. Legislación social en Bélgica." "Yon Kimu"ren idazlana ixenpuru ofeikaz asten da.

Send-lansaritza'tzaz deragoyo. Eta auzi onetan eredutzat agertuten dauan lateffija, Belgika da.

Lateri aretan sendi'lants i arazua ondo eralduta daguala ikusten da ikusi be. Legipetuta e-dauke, ta sendi bakotxari seme bakotxeko oradaintzen dautsen lantsarija, olantxe bananduten da..

Lenengo semiarentzat, ilian 15 franco.
Bigafenarentzat, 20 fran. .
Irugafenarentzat, 40 franco.
Laugafenarentzat, 70 franco.
Eta bo tetik gorakuentzat, 100 franco.

Senc-antsari ederak benetan Belgika'n lagipetuta daukezanak.

'El Noticiero Bilbaino"

Gipuzkoa ta Araba'ko guda-oñetan gogof deragitsoela diñue.

Cestafe ta Nafarete'ren aldezliak gu-oin bi ofeik eustiafen. gudari asko ga-duten dabela diño. Efi-aldezlien suaga gogof oldaftuten ei-dautse, ba, ta gud-jen aftian kaltiak-kalte egin.

Markina, Eibar eta Elgeta'n be, efi-dezliak, areyuen guda-esijak esku gogorez zigoftau ei-ebezan.

Eta eguneroko ofurerai jafafubaz, atzo be, Flandes'ko efektimentuko gudari bat e-ldezliekanatu ei-zan.

"El Liberal"

Oviedo'ko gudaketeatzaz idazten dau lenengo ingoskija.

Atzo be, Asturias'ko uri-burubari oldaftu ixan eutsoela diño, eta "Villa Euzkadi" efi-aldezlien menpe jausi zala.

"Villa Euzkadi" gafantzi aundikua ei da ixan be. Eta bertan aftu ixan ebe-an etxiak be, bardin.

Areyuak, La Rebolleda'ri oldaftu ixan -utsan. Alpefik oldaftu ixan ei-eban, baña, efi-aldezlien erantzunaz luf-jota geratu ei zan-eta.

Bufukaldi aretan, paxiotafak, 900 gudarifik gora galdu ixan ei-ebezan

"Euzkadi Roja"

"Catalunya y el ejército popular." Ixenpuru onegaz asten dau lenengo zefendako idazlana.

Catalunya ta Euzkadi, bakotxa bere lutefijetan, alkafen kide lez agertuten dauz. Bijak azke ixateko gai diran ef'jak, eta bijak Gaztela'ren buztafijaren lokafijak ezagututen dabezenak.

Catalunya'k, baña, paxiotafen aufka jagijaz eta aufka iñardubaz loftuko dan gurenda-bidez, katalufiatafentzat gura daben azkatasuna loftuko dauala diño. Eta asmo ofegaz efi gudaroztia softu dauala, katalufiataf gustijak, Catalunya'n zatifuta aurkitzen diran alderdi gustijak osotuko daben gud-rozte bakafa.

Eta Euzkadi be, euzkotaf gustijak, banan dagozan alderdi gustijetako gudarij-kin osotutako efi-gudaroztia baf litzakela diño.

"Euzko-Langile"

"Control" auzija bafiro be ondatu dala diño. Paxiotafak, abefi askaltzalien koldafkerija bide dala, euren nalmuzkerijei ei-dafaitse.

Guzufezko efiketa ofek noiz afte iraun biaf daben, ifaunduten dau. E. paxiotafen eten bako zemayakaz be zuzpertuter ez diran lateri askaltzalien koldafkerijaz afifuta geratuten da.

Jazoten d-anak jazo-a be, baña, gurendeaz burestunduko diranak, geu, e-ldezliok ixango garalako itxaropena agertuten dau. England eta Pantze erdi makal ikusten dauz ikusi be. "Controlaz" nai ainbarik—diño—, etoi zifala betuta jafi biaf dala.

TRATADU BARRIA?

Inglatefa ta Belgika jardunetan. Von Zeeland eta alemanen eskintzek.-"Nunbaiten lanean aztea beafeko da.-Beste izpafak.

Londres.—Belgika iñoren mende efu baze jausi ez daiten Ingelatefa bere bere aldetik laguntzeko gertu dago ta Bruselas'ekin aftu emonetan dogu.

Locarno itunben bafia egiteko asmoz Ingelatefa'k azaldu eban asmoai erantzunaz itsailaren amabian Londres'en Belgika'k bildutako agiri bat aftu zan eta agiri ofetan Belgika'k zer diñoanik iñori ez yako azaldu. Oraingo aftuemonok agiri ofen ondorenak doguz ausago.

Prantzia'k eta Rusia'k egin eben itunbenak kezkatsu jafi dauz belgikafak eta Belgika'ko Gobernua'ren aburuz itunben ofek Alemania-zale diran rexistafak indaftu egin dauz, paxisten eta komunisten aftean sortu daiken gudean Prantzia itunben ofen indafez komunisten gudan saftu egingo da ta.

Reichstag'en Hitler berak Belgika'kin egiunea egiteko gertu egoala adieraseban eta egiune ofetan alkafi guda zartadarik ez eutsela emongo ontzat aftuko eberla. Van Zeeland Gobernu burua baiña Hitler'en eskiñiok eskiñi lafi dogu ta Ingelatefa'ri laguntza berezia eskatuten dautso Belgika'rik iñork zapaldu ez dagian.

Hitler'ek Alemania'ren izenez Locarno'ko itunbena txafetsi ostean orain urte bete Prantzia'k eta Ingelatefa'k eskiñi eutsen laguntzak ez dau beteten.

Aftuemon onein bafi emon dau ausago Van Zeeland'ek Berlin'en eta Paris'en. Datofen ostean Londres'era daitenean Von Ribbentrop ordezkariak Locarno'ko itunbena txafesteko gertu dago.

Eden'ek Aldundi Nagusia'n bakeari eusteko nunbaitetik lanean astea beafeko da la adieraso dabenafen, Alemania'ri eskiñi bafiak egin eta asmo bafirik azaltzeko asmorik ez ei-dauka baiña. Orain eskiñiak egitea Hitler'eri ei-yagoko. Eden'ek itzetatik Belgika ta Ingelatefa aftuemonetan doguzala atara dabe batzuk.

Ingelatefa'k latefi guztien afteko itunbena nai dabenafen, Belgika'kin asi dabezan aftuemonak dirala ta Alemania adi eukitea lortuko dau ta orixe yako pozgafi Ingelatefa'ri.

Itunben ofen etofkizuna ta ondoren onak beste itunben zabalgoa egitea izango dira.

Ingelatefa'k ba-laki Europa Sartaldean edo Erdian gudea sortuko ba'litz, gudeoi zabalduko litzakena ta zabaltze-'k eragotziko ez leukiana.

Europa Sorkaldean eta Erdian bakeari eustea gafantzi aund'ko da. Alemania'ren koloni-auzia erabagi daiken, Alemania Latef-Batza'ra biurtuko dauan eta gud-iz kiluak gitxitutea lortuko eukean egiune edo itunbena nai leuke Ingelatefa'k.

Ames ofek egi biurtzea zail izango eta baiña amesok egi biurtzen asteko bide dirala Ingelatefa'ren eta Belgika'ren aftumonak uste dala.

"Civil" erdelitza dala-ta

Itz au "efi" euzkel ixenez euzkelbijauta ikusi dogu, eta egokija ez asko be gitxijago ez deritxagula-ta, zer bait esatia otu yaku.

Aurenengo ta befien "efi" euzkelitza "nacion" ikufitzekua da eta euzkelduak antxiña-antxiñatik onetarakoxe erabili dauana "Euzkalefija" ixeneren ikufpena dazauan edonok autoftuko dauanez.

Ixen batek ikufpen bat baño ixan dadikela bai-akigu, baña "efi" ixena zeindifia ixeterañ- laf jatsitia deritxagu, beraz egoki ez.

¿Ordiaz zein erabiliko ete-dogu?

Lopez-Mendizabal'en iztegijak "urlaf", "gufuritar" darabilaz, gure ustez egokijegi ez, beintzat notifiaj ezafi biaf ez yakozanian.

"Url" darabilan sustafaya baña egokija deritxagu, "civil" itzak be sustafai bafdifia dau-ta guda ta eri gudari egin ixan dogun lez, uri ta eri aftu ta "urari" egin, baña ofen uflan bifitan "r" gedifia esan biafian, euzkereak safi egin oi dauana iñardu, ta "r" bata dan tokijan "l" imiñi, aulan "ulari" civil ixango litxake.

Difoguna ondo deritxagula, "Abagtos civiles" "Ulari-orniketak" litxake.

Esan dodan gustijau zuzenetsigafi ez ete dan bilduta dot bafuban, baña matagia arilitzeko lain ez naz.

¿Dakijanak of-ziaf bai dira-ta, argiztuko ete-gauz?

TABIRATAFA.

Euzko-amaren gixarte-lanak

Iñufitxuak

Maitasunak guztija al dau; maitasunak ez dau eziñik ezagutzen, guztialduna delako. Ona emen amaren ala amak bere semiaren guztija al dau, baita semiak bere amagan be. Ama-semien bijotzak lokafi auzig-gozoz lotuta dagoz eta guztija al dabe alkafegan. Gauzok egijak izanda be, baña, ugarijak dira gauf egunez bere semiak benez maite ez dabezan amak; geyago, amak izaten ez dakijen emakume ezkondubak. Beraugaitik ezkonzen dan emakume gastiak lenengo ikasi biaf daben gauzea auxe da: AMA IXATEN. Ez semiak eukiten, semien egizko ama ixaten bano.

Iñufitxuak emoten dabe gai onetan erakutsi eredugafija. Iñufijak ama biurtu baño len, euren ego txiki zi-margotubakaz azkenengo egaldija egiten dabe; egaldijau emon eta jatsiten diranean, euren oin txikiz atal a-alka egotxuak ufatzen dabez eta ap-pal amatasunez jantziia. iñufitegijan saftzen dira. Amaifu ziran ikufitxo ama bafijarentzat egazaldijak; auferantzian dan guztija semientzat ixango da; bere ames bakafa semiak aztia ixango da.

Erakutsi edefa iñufitxuak amaf damotsena. erakutsi edefa ta eredugafija.

Zenbat dira euzkotaf aftian ezkontzeaz batera euren naikeri eguak, kale-zalekeri eguak, nagikeri eguak, burubak erakusten jafaltzeko gurari-eguak suztafez ebagi ta iñufitxuak lez ezkontzetxian bafuratzen diranak? Zorijonez asko orai-dikan, batez bere geure basefijetan; kalian ufija guak dira, baña, gauf zorijonez ba dira. Ofaitiño, ezin ukatu aldazbera goyazala; gaufko emakume gastiak ez dauke geure gurasuak euken bafu-sentzunik, etxezale tasnik bez; gaufko emakumiak ezkontzatietan dala ez dauz oartzen ezkontzean ondoren gozuak baño eta jakiña, egijak bere amen gozuai ez dautsela erantzuten ikustian, kikildu egin ofeda eta bere biafkun astunak, bere amatasun biafkunak enkaz gora jaurtia erabagiten dau. Amatasunak bere atzez dakafzan biafkunak ugarijak dira ta astunak. No-beraren maifiagin txutxu-mutxuka, etorkizuna argitsu ta alai agertu ondoren oruak eta moruak agintzia gauza efeza da. Baña etofkixunak bere gafaztasun ta atsekabe-arantzakaz ukutzen dauskunean, gafaztasun ta atsekabei aurpegi emon ta jasarpenez eramatia ei da ofen gauza efeza.

Ama... izaki bafija ludiratu daben emakumia; gogo ta zofiez, gorputz ta arimaz eralduriko gixaixatiaren ardura estuba daukon emakumia. Gauza aintzalgafija emakumiarentzat amaren mala altsura eltzia, baña gaiztetsigafija bere sabeleko igalija zaintzen ez dakijan ama.

Beraugaitik aitatu dogu iñufitxuen bizikera. Euzko-ama gastiaren bafkuna beori da: bere ixate guztija, bere adimen argija, bere bijotz maifiasuna, bere naimen sendotasuna ixaki bafijagan ezafi. Beraz ez dagijenak, edozeñen eskubetan seme-alabak itxi ta baterik bestera dabiltzan amak, ez dabe oartu amatasunak leporatu dautsen biafkun astuna; ez dabe oartu aberiak baño zerbait geyago diran seme alaben jaube dirala; ez dabe oartu jantzi, alikatu ta zerbait irakastiaz beste barik ez dabezela betetan euren seme alabakanako biafkunak. EZ DIRA OARTU BATEZ BERE EUREN SEME ALABEN ETOFKIXUNA, EUZKADI'REN ZORIJONA euren eskubetan daukela. Ez dira oartu seme-alabadun emakume ezkondubak ez dirala euren buruben jaube: DIRAN GUZTIJA SEME-ALABENTZAT DIRALA.

MAITE

Mafiari

AINGERUTXUA ZERURA.—Geure aftian ile bi inguru igarota, lengo barikuan igon zan zerura Bilbao'taf Ane Miren euzkel ixendun neskato polita Bilbao'taf Dunixi ta Arteaga'taf Salome senar-emazte abefkidien alabatxua.

"Umiak gorantz. aingeruak egaz."

ERIJOTZAK.—Elexakuak aftuta, igaroriko astian il zan Belakortu'taf Kauldi gaxona, 68 urtedun zala. Goyan bego.

Sendijari atsekabian laguntzen dautzagu, ildakoaren semia dan Juli abefkide aintzuari batez-be.

Elexakuak igandian aftuta, astelen aratsaldian il zan bafiz. Zugatzagoitia'taf Jokin, "Lustefijo" basetxeko etxaguna, 70 urtegaz. Jaunak zeruan euki begi.

Onen sendijari be. atsekabian laguntzen dautzagu.

Alditxu-ontan, erijotzak, ertzak eta mertzak ataraten dituz emen. Ile bi ta erdiren bafuan ba, bata bestiaren orpuan zortzi lagun bestalderatu dira ta.

GEXUAK.—Ozerin'daf Kandi'., "Idarza"ko andera. egun ontan gexorik aurkitzen da. Osasuna opa.

"Kapana erdiko" Perderika larogei urtedun aguretxua be aste onetan ogetik ixan biaf dau. Arin osatu, Perderika, izpafabatzale ona be bazaiugu ta.

AGURTU.—Igandian agurtu genduzan amen Biteri'taf Efupiñe ta Miren emakume begikuak.

Baña egubaztenian agurtu genduzan Asuaga'taf Julen, "Kirten" eta Itufbe'taf Josu, "Kirikiño" gudaloro gudari efimiak.

Garcia'taf Joseb gudari ona be, igaroriko astian emen. egon zan.

Zintzuak ixan mutilak!...

IKUŔIÑAREN ONESPENA.—"Kirikiño" gudaloroko ikufiñaren onespena dala ta. ile onetan edo ufengoan (J. I.) erifontan jai begiko bat ospatuko da. Ofetarako, gurutz biko ikufin edefa gertu daukagu ta.

Jai ori noz ixango dan, bere aldijan iragafiko da.

EDURA. — Igande goxian, gure aitzmendi-jagijak oyal-zuriz edefto apaindufta agertu ziran. Astelen goxian bafiz. efi guztija zuri zuri egoan. Eskaratzeko leyotik begiratuta ¡edufa dan polita!...

"Zeortu"ko Aurkene neskatotxuak etanik, geure etxeko sutonduan jezafita gitzalarik umearoko bertso zaf oneik abestu genduzan.

Edufa datof menditik
Urkiola-ganetik
amak opilek labatik
atak ardaue zaragitik
amamak okelie lapikotik
afitak sagafak kamarutik.

Din-dan, din-dan, edufa etofi menditik.
din-lan, din-lan, Urkiola-ganetik.

Suen-buruen laratzue
aren onduen burduntzije
sugaf-aftian koipe-urtuteko
solomue ta urdaije,
lukainkie ta pernile
¡abokadien gozue!
ondo dagoan gixontxu ofek
eztau efuki lagune.

Din-dan, din dan. edufa etofi menditik,
din-lan, din-dan. Urkiola ganetik.

Ofafik mendijetan euren biafkunak betetuten dabiltzazan gudarijak-eta, aurtengo edufari ain polita eztautsoe eretxiko... Oferi. eguzki argija atsegingafijago ixango yake... Betof ba eguzki-argija...

Mafiariko

Gernika

GUDARI-ERES ZALIAK. — Loyola-guda taldeko mutilen artean. adizkide onak dituguzala san bearko.

Joan dan otsalaren gau baten, aparitako nengoala, ingi txataltxu baten idatzita oar auxe artu neban:

"B. adizkide: Gaur bederatzlak inguruan etofiko gera lau lagun erestaldifxo bat entzuten. Gero arte, ba.

M."

* * *

Eta esan da egin: gau atan bederatzlak jo ta laster, geure zurubian gora iru gudari mofosko etozan euren untzedun oskin ta gusti.

Etofi ziran mutilok eres-zaleak izan be, antzafa-ta, gure etxean gau atan entzun zan erestaldia, goi-erestaldia, auxe izan zan:

1'g. — "Danza macabre", Saint S,'rena.

2'g.—"Rapsodia húngara, 2'gafena", Listz'rena.

3'g. — "Parsifal satitxu bat", Wagner.

4'g.—"Fidelio", Beethoven.

5'g.—"Casatjon", Mozart.

6'g.—"L'aprenti sorcier", P. Dukas.

7'g. — "Euzko Abendearen Eresería".

Azkenengo au, guztiok txapelak eskuan eta zutunik giñala.

* * *

Geroztik, egun birik bein emen izan doguz iru eres-zale gudari onek: Mixelena, Beiztegi eta Bergaretxe, irurok eibartafak.

Bart, baña, gaur gudoñera joan bear ebela-ta beste gudari bi geyago batu yakezan eta guztiok batera ordu bi inguruan egon gin-n "gramola" soñuan, bake-bakean, goi-eresiz geure biotzak ase-ase egin arte.

* * *

Gomutaki antzo lefo oneek betetan nagoan garayan, an izango dira neure iru lagunok gudoñean, izkiluak eskuetan eta areri- eldera begiak zoli. Belafietan, baña, bart geurean entzuniko eresi-gozuen oyartzunak iraungo dautse.

* * *

Atzoko eresiaz eurak entzuten noen arlean, artu bedie EGUNA maite onen bitartez neure agufik anaikofena, eta osasunez len-baj-len biurtzeko gurarirjk biotzetikoena.

BELU-MENDU.

ATZERRIKO IZPARRAK

Italia eta Yugoeslabia adizkidetuko ete?

Salerosketa itunbena izenpetzen.-Bein betiko amaituko ete datoŕen mayatzean Etiopia'ko auzia?-Nai aña egazkin ezin egin Inglateŕa'k bere lantegietan. Emeki ordez sendo jokatu beaŕa.-Beste izpaŕak.

ITALIA TA YUGOESLAVIA ALKAŔ KONPONDUKO OTE?

Belgrado.—Atzeŕ-arazoetako ministruak itzaldi bat izan du ta Italia'ŕi buruz jardun du geienbat. Politika adixkidetasun gabe alkarŕasun orokoŕ bat batzeko jokera bide, Yugoeslavia'k ere bazuala zigoŕ aften arte, esan zuan. Zigoŕ oŕek oker aundiak gaiñeratu dizkio Yugoeslavia'ko diru goraberari. Adriatico'ko arazoa argi ta gar bitzen asia dala azaldu zuan azkenez eta beŕiro ere Italia'k eta Yugoeslavia'k adixkidetasun osoz alkaŕ aftu emanetan ekingo dioten susmoak dira nabari.

SALEROSKETA-ITUNBENA IZENPETZEN

Roma.—Buenos Aires'etiko izpaŕak dio tenez, Guariglia italiaŕ enbajadoriak eta atzeŕi-arazoetako argentinaŕ ministruak, lateŕi bion afteko salerosketa esitzen duten idazki agiriak izenpetu zituzten atzo. 1894'garenez, izenpetutako salerosketa itunbenari oaŕ batzuk geiagotzeari lotu ziran.

URTEAN BAIÑO URTEAN BEERAGO

Roma.—Castillo argentinaŕ embajariak Roma'n egindako azalpenak agertu ditu "La Tribuna" izpaŕingiak. Lateŕi bion aftean 2.500.000.000 lira balioko salerosketa egin ei-zuten 1929'gaŕenez; 490.000.000 lira balioka 1934'gaŕenez.

MILCH BURUZAGIA ETORI

Napoles.—Iru motordun Junker baten Milch buruzagia. Alemania'ko egazkingo idazkari-ordea etoŕi da Berlin'etik.

BESTE BIDETIK ORAIN

Paris.—Batzaŕak aŕtu dituan erabakien itxuraz, Blum jaunaren diruarekiko politika ziaro aldatzen dijoa. Guda-eralguntzai aurpegi emateko lateŕi aldezketako enprestitua edatuko da astelenez.

EMAKUMIEN JARDUNAK, RUSIA'N

Mosku.—Iradan zazpi urtetan, olaetan lan dagienak, iru miloe ta erditik bost miloera eldu dira. Eŕi onetako langile guztietatiko euneko 34, beraz, emakume.

Orain zazpi urte, 1929'gaŕen urtean, industri-olaetan lan egien emakumeak 939 mila ziran. Igaz, ordea, 2.907.000 giño izan ditugu, langintza oetako langile guztietatik 39%.

Emakume sendagile edo medikoak, 42.300 dira, efusitaŕ sendagilietatik erdiak iya. Efusitaŕ emakumiaren bizikera, asko aldatu urte oneitan, emakume alde, amatasun eta ume-azterako egin izan diran legeak diralaŕia.

Kindergarten diralakoak egundokoan ugaritu dituc, joan dan zortzi urte oneitan 2.132'tik 23.600 eldu baitira.

Amaen eta umien osasun zeinketa ordaradun diran sendategiak 2.475'tik 3.945'ra eldu dira azpi urte auetan.

Auŕ-etxeak, Efusi osoan, 4.700.000 auŕ dituc euren zainpe.

Lateŕi arazuetan bere, emakumeak gero ta ugariago ari dira. Igazko batzaŕan 410 emakume ordezkari izan ziran, eta 1923'gaŕen ordea, 49 baño ez.

EMEKI ORDEZ SENDORO JOKATU BEAŔA

Mosku.—Ez-saftze batzordearen erabagiak gora eta bera darabilez egunkariak curon jardunetan.

Asmo oŕek, eta erabagi ta neuŕiok goraberа, paxista nastezaliei ez dautse esirik jaŕiko.

España'ko naste lotsagaŕa amaitu, eta Europa'tik gudea ufutiratzeko, makal eta emekeŕia oñaŕi dauan politika azalkeritsua zearo kendu beaŕ da. Zintzotasuna eta sendotasuna alkaftuaz, bake alde jokatu, ordea.

Oŕetarako, Rusia prest eta gertu dago.

BA'DAKI

Paris.—Talavera de la Reina'n dagon Havas izpaŕ-etxeko izpaŕkariak, Madrid'era iñoiz saŕtzekotan paxistaŕ egin duten janar-ŕniketa eraren beŕi bai ei-daki.

PRANTZIA'N FRENTE POPULAR' AK GALDU

Paris.—Iraŕizkin Artezkaritza-Batza sortzeko egin dabezan auteskundietan Prantzian Froint Populair'ak galdu egin dau.

BEIN BETIKO AMAITU ETIOPIA'KO AUZIA

Ginebra.—Datoŕen mayatzean amaituko dabe, kontizu bein betiko, Etiopia'ko auzia Lateŕi-Batza'n.

NAI ADIÑA EGAZKIN EZIN EGIN INGELATEŔA'N BERTAN

Londres.—Egazkin-geitzeko asmuok Ingelatera'ko egazki-letan ezin lortuta, Ingelateŕa'ko egazki-arazo Arduradunak egazkiñok ipaŕ-amerikaŕ egazkin-oletara eskatu dauz ta antxe egingo dabez egazkin-batzuk.

INGLATEŔA'N EGAZKIÑAK, BE, GEITU

Londres.—Aurtengo urte onetan egazkiñetan eta egazkiñak beaŕ dabezanetan eralgiteko 88.000.000 libra izentatu dabez Inglateŕa'n. Igaz ostera garilean geitu ebazenak eta guzti libra 45.704.000 baiño ez ebazan eralgi egazkin-gastuetan.

Dirutza ofen eskabidearen zio edo efazoiak eta eurok dabezan asmoak adierazoten dauzan idaztian, Egazkin-arazo Arduradun Swinton jaunak paŕ-azkenerako Inglateŕa'ko egazkin-taldeak 1.750 egazkin izango gertu izango diralа diño. 1.750 egazkiñak 124 egazkin-taldetxantan bananduta izango dira.

Garilean Inglateŕa'ko egazkin-arazuetarako 55.000 gizon egozen eta oraingo asmo baŕiotan agiri danez 70.000 gizon izango dira auŕerakuan. Zenbaki oŕeitan India'n dagozan egazkin laŕi-egintari ta gudariak ez dira kontetan.

MIÑAK DIRALA-TA

Londres.—Espaňaŕ itxasertzetan miñak dagozala ta aŕisku oŕei iges egin dagiuen Gibraltar'dik Marsella'ra dabiltzan itxasontziki. Itxasontzi-jaubeak Baleares Sorkaletetik zeaŕ ibili daitezala agindu dautse.



ETXEBAŔIA'KO ANDER DEUNA

KONTROL ALDEKO BATZARRA

Astelenerarte atzeratu batzar nagusia. Batzar nagusi ori egin artean zeastasunik ezin jakin.-Itxas zaiketa egiteko 550 ofiziale bearko dira.-Espaňar ordezkariak Londres'en egin dituan azalpenak aintzat artu.

'KONTROLA ETA ATZEŔITAŔ GUDARIAK ALDETEAZ

Londres.—Ez-saŕtze Batzordea'k bilera izan eban atzo aŕatsaldean. Foreing Office jauregian. Izpaŕ auek bialtzerakoan utzi dabe, eta astelenez egingo dabe nunbait.

Kontrola noja eta zer bidez ezaŕi, zeaztasun guztiak biŕibilduterik ez dabe loŕtu. Batzaŕ nagusi orixe egin aftean, ordea, zeaztasun oŕek jakiterik eztogu izango. Alabaña, asmoaren erak andik-mandika egunerokuetan agertu ditue, eta argiro, ala be.

Kontrolaren banakaritza edo diru-aŕloa Eŕiaŕteko Batzoŕde oŕek beste batzaŕen baten bizkaŕ utziko ote dauan diñoe. Batza baŕi oŕek lendakari bat eta bost batzoŕkide izango ditu.

Lendakaria, komiteak berak izentauko dau, eta egiunean afteko ziran 27 estaduetako ordezkarietatik, 5 Estadu galenen ordezkariak, batzoŕdeko.

España ta Portugal'en mugak zainduteko, 130 lagun, ingeleŝak, izango dira, eta len argitaldu genduan eraz izendatuak, eurak.

España ta Frantze bitaŕteko mugak zainduteko Talde berezia, 130 lagunekoa izango da, eta Estadu askotakoak izan be lagunok, Gibraltar aldean beste bostek jardungo dabe arazo bardiñean.

Itxas-zainketa ori egiteko, 550 opiziale beaŕko dira, eta arazu oŕtako diran Estaduen ontzietan ibiliko dira, España ikertuaz, eta orobat edozein ontzik, armak, guda-gayak ala gudariak daroiazan ikusiaz.

Egundo ezpaita egin era ortako zainketarik, egin asmo dan ori zearo eta bat-batean lortutaŕik ez da izango maiako baizik.

Lenengo maila, agindari nausi eta enparau mutilak izendatutea izango da, noski.

Ingeles eta pantzetaŕ agindariak, España'gazko mugaetan, Auñamendi ta Gibraltar aldean, zaintzaleak ipini ditue dagoneko. Zeregin ori bete beaŕ dabenak diplomatiko-arauz etsiak izango dira, eta oŕelakoak oi dituen eskubideak izango ditue, kaletako bildegietan saŕtu-urten egin, burnibidietakoetan, gauza gordetegietan eta abar. Ibiltaunen agiriak eta ontzien garbitasunak ikusteko eskubidea be bai.

Espaňaŕ ordezkariak Londres'en egin dituen azalpenak aintzat aŕtu ditue ingeles izpaŕingiak.

Inglateŕa'ko eta Frantze'ko erbeste-arazuetako ministruok oraindik orain egindako azalpenak Valencia'ko Gobernuak jaso egin dituala, atsegiñez aipatu dabe.

España'ko gudan ari diran atzeŕitaŕ guztiak España'tik ateratiazko asmoda ori, eta ordezkari oŕek diñonez, efizaleak gertu dagoz orixe egiteko be.

Londres'ko auteskundeetan laboristak nagusi

Londres. — Londres'ko Udala edo Ayuntamentua egiteko egin dabezan auteskundietan laboristak 75 ziñegotzi edo kontsejal aŕara dabez ta zarzale edo konserbadoreak 49. Laboristak lengo Udalean baiño oraingo baŕian kontsejal geiago dabez.

Laboristok eŕiaren-alde, langileen alde zarzaleok baiño zuŕago jokatzen dabe ta zarzaleok geruago ta indargeiago doguz.

"Londres'en guk irabaztea, Madrid aldeztea da" esaten eben laboristok auteskunde-egunetan.

Zarzaleak ostera "laboristei botoa emotea, espaňaŕ erkaldaŕei suaga edo bonba bat emotea da paxistak il dagiezan", oju egiten eben.

Londresko auteskundeok eŕi-aldezle aldekuen eta paxista-zaleen arteko buruka etsi daikez.

WASHINGTON'DIK

Aleman ordezkaritzaren asaŕeari erantzuna

Amerikaŕen erantzunaren muña

ALEMAN ORDEZKARITZAREN ASAŔEARI ERANTZUNEZ

Washington.—Diplomazi arauz, erdi bestelabaitakoan, Lateŕi Batuetako idazkaria'k Gobernua'ren atsekabea agertu dautsa aleman ordezkariari, New York'eko alkate Laguardia'k Hitler'en kaltezko itzak diralaria.

Laguardia'k Hitler'etzaz auxe iñoan: 1930'ko New York'eko erakusketan, izugaŕikeŕiak azaltzeko Hitler orlako txabola baten erakutsi beaŕ leukiela.

Esakun gogoŕ oŕen kaltezko asaŕea, aleman ordezkariak berak agertu ezpai dau, ngarbitz-itzak Hull idazkariak ez dautsaz egin, europaŕ arazuetako buruak, James Dunn'ek egin dautsa.

Aleman Gobernua'ren izenez asaŕea agertu eban Hans Thomson'ek, aftu eban Dunn'en erantzuna be. Asaŕe-erakustea eta agarbizketa, itzez egiñak izan dira.

Amerikaŕen erantzun muña auxe da:

"Gobernu alemana, bere emengo ordezkariaren bitartez, espaka ari izan da, New York'eko Aston Hotel'ean Tiorello Laguardia agurgaŕiak bere itzaldian, Alemania'ko Gobernua'ren eta lateŕi buruaren kaltez azalpenak egin dituala-ta.

Eŕi onetan Legedia'k, gizon guztiei euren buruera eta asmoak azke esaten laga ten dautse, eta oitura ori eŕiaren izakeratzat daukagu. Ori gorabera, norbaitek berenez itz egitean guk aftu emonak ditugun Gobernu'ren bateri iraňik egin ezkero, Lateŕi Batuetako Gobernuak min aftu oi dau.

Aleman Gobernua ao miñetan izan dituen azalpen oŕek, ez ditut nik ontzat aftzen. Itz oŕek ez dira Gobernu onek Alemania'ri esandakoak. Gobernu bakoitzaren eskubide ta izaerak zainduaz, itzal eta lotsa osoz lateŕi guztiekin aftuemonak izatea da gure jokaera."

Azalpenok aleman eŕiak iruntsi ala ez, estadu bietako ordezkariak amaitutzat jo dabe asaŕe aura.

Brosky, New York'eko epaikariak, 1935'gaŕen aleman Gobernua'ren kaltez jardun ebanean, azalpen bardiñak izan ziran.



ELGOIBAR

Txiŕistadak

Erdeldunen esakera bat eztakizue? "Habló el buey y dijo muuu...!" Ba'daki ori "Otarbe" jaunak?

卐 卐 卐

Euzkerak akademiko ugari ditu. "Otarbe" txapel eta makilladuna da. Euzkel-akademiko berezia! Baña bestientzat, Beretzat ez. Oi beretzat!

卐 卐 卐

"Otarbe,"k itz baŕiak asmau ditu. Akademikoak ixilik dagoz-eta! Eta itz baŕiak atara ditu. Ara: Beztela. Besela. Bezte. Eguki. "Tener" esateko. Esagutu. Ezkatu. Geiski. Gogaretzea. Ordamiduko. Eta abaŕ. Zetarako jaraitu?

卐 卐 卐

"Otarbe" euzkerareŋ batasunera dua. Oŕek, izpaŕingi baten itz bat era bitara idazten dabenok...! Baña berak eskubide ugari ditu. Ez izpaŕingi baten, ezta idazlan baten. Leŕo baten, leŕo baten!, dogu eta degu darabiltz. Eta leŕo gitxiren baŕuan eurek eta eurak, euskera ta euzkera. Baña "Otarbe,"k idatzi ditu. Eta "Otarbe" txapel eta makilladun akademikoa da. "Otarbe"!!! Ixil gaitezan eta txapela kendu.

ONDAŔ.

Ego aizeak jo orduko

Gu geureetan baiño begi-zoli ta azkaŕago doguz baseŕitaŕak eurai yagokuezan arazuetan. Guk baiño zuŕago jokatzen dabe euren lanetan.

Bai, irakuŕle; garia kakotetu daitenean azkaŕ ibili beaŕa dana ba-dakie, edozein ego-aize putzek garandu daŕkez gari guztiak eta.

Azkaŕ ibili beaŕa dana ba-dakie ta azkaŕ ibili, be, egingo yakuz.

Gatozon gu geure arasora. Euskeltzale zeure burua esten dozun oŕekin jardunalditxo bat egin nai neuke.

Euzkera maite dozuna ba-dakit, biotzez maite dozu gaiñera.

Zure asmoak ba-dakusadaz. Euzkera indaftu, euzkera aberastu, euzkera zabaldu; oŕa zure ames gordiñak.

Batzuetan baiña euzkera alde zer egin ez dakizula ikusten zaitut. Lanpide lau-lau ta atsegin baten baŕi emon nai neuskizu.

Gure eŕi onen gogo-lantze ta izate berezia darakuskuen itz, esakera, siñeskeri ta ekandu asko doguz gure mendi-zabaletako baseŕietan. Galdu-agiñean doguz gaiñera.

Erdel-aixetan bein betiko ere yakuz asko ta asko. Beste asko baiña udaguenean kimutik askatu dan orbel zimel eta zimuŕen antzo, aize putzak noiz eruango doguz.

Adi, irakuŕle.

Siñeskeri, oitura ta itzok belaunetik belaunera euzko-odoletan yuakuz; aitak semeari ta semeak beronen ondorengoei aoz-ao irakasten dautsez. Semeak ikasten daben geiena gurasuegandik ikasten dabe. Zeinbat eta sendi-alkaftasuna ta batasuna aundiago, ainbat eta ikasiago egingo dabez umeak oŕeitariko itz, ziñeste ta abar.

Sendi-alkaftasuna miesten, nasaitzen asi yaku baiña. Semeak gurasuekandik ikasten dabez gauza batzuk, baiña beste asko beste nun baiten, ikastolan adibidez, ikasten dabez.

Gurasoak ba-dakiez, antxiñako gauza asko; euren biotzetan ezaŕita ziñeskeri, ekandu ta itz asko dabez. Semeei baiña, gusti oŕeik noz irakatsi ez dabe, semeok eurekin saŕi or daukez ta. Orain len-adiñeko batasunik ez dogu ta, gudasoekin batera oŕeitariko siñeste itz ta aba. asko ilten yakuz semeen biotzetan iraun egien, sustaŕik botateko astirik ez dabe izan-eta.

Orain gure edo atso zaŕ bat ilten yakun bakoitxean euzko-izatea ezagutzeko argibide izan genkiguzan oñaŕiak galtzen doguz. Euzkerari pitxi edaŕ izan eikjozan iztxoak, esakerak, euzkereak galdu egiten daun.

Oŕa, irakuŕle, geu konturatzeka, euzkera maiteari eriotzi-ujoldeak zeiñen odoi-gailu ikusgaŕiak daruotsazan!!

Zuaz, ene euzkeltzale, gure zaŕ-gana ta eriotzak euzkerari pitxitxorik kendu ez dagion, zaŕoi maitez ta pozez zeuk kendu pitxitxuok eta elerti-kutxaratu egizuz.

Orixe dozu gaur zuri, ene euzkeltzale, irakatsi nai neutzuan lanpidetxo atsegin eta egokia.

MUETA GUSTIETAKO KRISTALAK

GORBEA Y C.ia

41'gn. Alameda de San Mamés txaidian

11447 Ufutizkiña

GEXORIK TXAŕENAK

Gure auŕetiko guraso aguŕgaŕijak, zintzoz eta zuŕez besterik ez lakuak ziran asaba aguŕgaŕijak, irakuŕle, gixa-gexo mueta gustijen aŕtian txaŕentzat esten ebezanak, iru ziran: ikusmendunaren ikusi-eziña; entzumendunaren entzun-eziña ta uleŕmendunaren uleŕtu-eziña.

Iru gexo mueta onetatik txaŕena, baña, gure guraso zaŕen aburuz, azkenengua da: uleŕmendunaren uleŕtu-eziña.

⁂

Egunoroko oĵureari jaŕaŭbaz, aurtemin be, atalka-atalka jazokun bi idatzi gebazan toki onetan.

Bata, gipuzkoaŕ gure eŕkide maŭiak euren izkelgi matiarentzat agertuten eben zaletasunatzazkua zan.

Bestia, baŕiz, Bizkai'ko itxaseŕtz bateko eŕitxu euzkeldunian atzeŕitik etoŕiriko karabiñeru birekin jazozanatzazkua.

⁂

Jazokunok, alan biaŕ be-ta, bata bestiaz nastau barik idatzi gebazan.

Alan be, baña, geruago ikusi ixan dogunez, idazle jayo batzuk, bata bestiaz ezetariko ikusi biaŕik ez daben jazokun bakun areik, alkaŕaz bezaŕkatuta agertu gura dauskubezala begiŕandu yaku.

Ikusmena ixan, eta ikusi ezin ixan dabenak; entzumena ixan, eta entzun ezin ixan dabenak eta uleŕmena ixan eta uleŕtu ezin ixan daben oŕeik, gipuzkoaŕ anaya maŕe-kutunentzat idatzi ixan gebana ta atzeŕiaŕ karabiñeruetzaz esan gebana, ¿zer daŕa-ta alakaŕegaz nastau...?

Ezetariko naste barik argi ta garbi agertu gebazan jazokun bardin ez bi areik, ĵpaŕingi ta idazki-bidez alka-

Neure eretxijak

Azkenengo geure idazkitxuan esaten geban lez, aldi onetan beŕi edo modan dago "askatzale" itza. Edozeñeri entzuten yako; askaltzaletasuna gora ta askaltzaletasuna bera yabilku edonor. Eta notiñez buruz dinoguna ber bera esan daikegu Lateŕijei buruz, be. Itzez baxen eŕaz ba'litzake askaltzale benetakua egiñetan ixaten, zenbat askaltzale ixango litzaken ludi apaiñ onetan! Baña, gauza gatxa da, askorentzat, ĵzketan diñon terdioko askaltzale izatez, askaltzale ona ixateko lagun urkoa maŕe ixan biaŕ da, edo goŕotorik etxako ixan biaŕ beintzat urkoari, ezta bera menpetu edo jopotuteko asmorik izan be.

Gaurko egunian, baña, bai notiñez eta bai Lateŕijen aŕtian, naŕa askaltzale ixeñez aurkeztu deuen edo auŕetengo ikusiren dana, be, orixe da; urkoaganako goŕotua ta bera jopotu guria ĵausten dogu geŕenetan. Eta ori oŕelan ixan ezketiño, askaltzale geure burua esten dogunok, zer ĵtxaropen euki daikegu paxista amuŕutu ankeŕ joputzaliengan, euren asmo ziŕala iñor jopu egitea dan ezketiño? Joputasuna besterik ez dogu, Mussolini, Hitler, Franco ta oŕaŕekin.

Benetako askaltzaletasuna saŕtu al-batiz, motin eta Lateŕijen bijotzatara, len esan dogunez, gauza bikaña ixango litzake, ta beraz, elitzake aurkiĵuko, gauŕ egunian ez, ludiŕik geyena korapilo nazkagaŕiz nastuta, benetako askaltzaletasuna bata bestiaganako itxala eta gixatiaren zorijoña da-ta.

Olakoxea genduan Euzkadi geure abeŕija benefen azkatasuna alba eŕijak lapuŕtu edo ostu eutser-aŕte: abendeŕi askaltzale bene-benetako askaltzale genduan Euzkadi bere desti garbijak, argi-argi diñoskunez. Eta, auŕerantzian be, lortu gura doguna, abeŕtzaleok beintzat, Euzkadi-Lateŕi askaltzale ixatea dogu, euzkotaŕ gustijak euron euzkotaŕ eginbeaŕak bete dagiezan eskubidez dagiguzan, eta Euzkadi zorijontsu egin daigun.

Oŕetarako, baña, euzkotaŕ gustijok gaŕoz biaŕtuta—atzeŕijan laguntasunari begira egon barik—paxista madarikatuak soŕtu daben guda negaŕgaŕi oŕetatik geŕe abeŕija azkatutera. Orixe da nire eretxija.

BASAKIÑA

Oaŕa.—Askaltzale: demócrata.

Abisiniakoa baltz oraindik Italiŕentzat

Addis-Abeba'n Graziani gudalburuari jazo yakonak saustada aundia emon dau Londres'en eta Italia'k bere aginpidea Abisinia'n ezarteko idoro dauzan eragozpenen ezaugaŕi etsi dabe askok jazokun ori. Jazokun oŕek gaiñera ondorenak izan daikezala italiaŕ Gobernua'ren jokeran, be, diño "Le Temps,,'ek.

"Manchester Guardian,'en politika-autu arakatzale-kidazleako oŕeri buruz auxe idatzi dau: Jazukunoi ez yaku izan miragaŕi... oraiñarte beintzat. Abisinia'ko bastaŕ batzuetan baiño ez dabe aginpiderik italiaŕak eta bastaŕ oŕeitan daben aginpidea, be, ez dogu oñaŕitsua.

Beti doguz italiaŕok asaldari taldetxuen aurka gudatzen. Asaldari oŕeik izkiluŕik jaurti ez daben abisiniaŕak doguz. sko, be, dira baiña bi bulartsuak eurok.

IZTEGI TXIKIA

Euzkeraz irakurtean ojituta eztagozan euzkeldunak itz askọ ez ezaunak aurkituko ditue, noski. Eta oraiñ iztegiŕik zuzentzea gaitza dan ezkero, irakurleok IZTEGI TXIKI au bitaŕte daĵa beaŕ izango dabezan azalpenak izango ditue.

Azalpenok astean bein, oŕetarako izentauriko egun baten, egingo doguz.

Beraz, ba, itzen baten ikurpenik edo esangurarik yakin nai ba-dozu, izpaŕingi txataĵ auxe bete, ebagi ta itxi bako idazkaza] edo sobre baten, zentimo bikọ ikuŕatz edo sello bategaz zuzenbide aonetara bidaldu egizu:

EGUNA
Correo, 17, 2.°
BILBAO

Itz ez ezauna	AGERTU DAN			
	Zenbakĵa	Ingoskĵa	Zerendea	Leĵoa

Bidaltzalien izena .....
Eŕja .....

Franco'ren asmoak

Madrid'en saŕtu ba, ziran...

Kafesnea dubarik emongo eben

Paris.—Talavera de la Reina'n dagon Havas izpaŕ-etxeko izpaŕkari batek bai ei daki paxistaŕak, Madrid'era saŕtzekotan, egin duten janaŕ-ornikaren beŕi. Ez ei diŕa badaezpadan-eta ibili; janaŕi pila edeŕa ei zuten aldean. Guztia zeukaten begiz jota, ez janariarekikoa bakaŕik, baita auŕak eta gaixoak bereala zaintzearekikoa ere. Erki guztiak janariak eta janariak bialdu zizkiten paxistaŕoi. Onek bereala uri nagusian banatzeko asmotan ziran.

Ogei mila tonelakada janaŕi baiño geiago batu zuten; patata bazan, esnea, ikatza, aragia, olioa koipea ta abaŕa ugari eskuratu zuten, janaŕi-saltokietara banatzeko asmotan. Makalauen olioa ere amabi mila litro baiño geiago loŕtu zuten, gutxi jan zuten auŕai emateko. Madrid'era saŕtzen ziranean, uri-nagusiko biztanleai akeit-esne duan eta ugari emateko asmoak zituzten paxistaŕok.

Ikusten danez, arduraz eta begi-zoli jokatzekotan zan Franco'ren Gobernua, paxistaŕak Madrid'era saŕtzen ba'ziran.

Gudako izpaŕak

Paxisten ankerkeriak. Españar eŕepublikaŕak auŕera

BAŔIRO BE

Madrid.—Paxisten egazkiñan gaiztakerietan jaŕaitzen dabe. Atzo ainbat egazkin ibili ziran Alcala de Henares eta San Fernando'ren ganian eta bonba ugari jaurti ebezan. Bonba oŕeik kalare eta zoritxaŕ ugari egin dabe.

ARTILERUAK GOGOŔ

Madrid.—Eŕepublikaŕ artileruak eztagoz lo egoteko. Areriuak guda talde ugari batu gura ditula igaŕi dabe eta eten barik ekiten dautse talde oŕeik banatu eta galerazoten.

GRANADA'RUNTZ

Eŕepublikaŕak kementsu eta adorez duaz Granada'runtz. Azkenengo aŕturiko juŕaldeak sendotu eta indaŕ baŕiak aŕtuaz auŕera ta auŕera duaz. Orjiva ziaro inguratua dauke eta eŕi au lasteŕ jausiko dan itxaropena dago.



Karlistada aldian egiñiko argazkia dogu au, Bilbao'k ordutik ona aldakuntza andiak egin dauz.

LORETXO
ELEBERRI - EDESTIA

Zarauztaŕ gudari kementsuari gelgaŕi ta maitasunez.

VII

Larunbata da. Andazaŕate'ko guda oñetan gudaketa izugaŕia ari da. Yon ere guda oñetan arkitzen da eta Loretxo'ren kezka, aundia da. Igande goizean goiz, Loretxo lenbiziko jaupa entzutera praile-tako elizaratu da. Yon'ek ere guda oñe tatik etoŕita jaupa entzuteratu da. Jaupa ondoren bi gazteak zugastiratu dira. Alkaŕ uŕeratu orduko. Loretxo'k negaŕari ema ten dio, esanaz bere maiteari. Guda gal du degu eta aguŕ gure ametsak... Ez dizut geigo ikusiko...

—Baretu zaite, Loretxo. Ez uste izan gure uria galdu degulako, guda galdua degula. Gurenda gurea izango da...

—Zertarako gurenda geigo alkaŕ ikusiko ez ba'gera? Urian geratu zaite eta nik gordeko zaitut. Zu juten ba'zera beste gaxotasun gabe maitasun miñez il'ko naiz...

—Loretxo. Ni, lenbizi euzko gudaria naiz eta gero... Zin egin det abeŕi aldez jokatzeko bizi naizen aŕtean eta euzko gudaroztean jafaituko det guda amaitu aŕte. Zertarako soiñ azkatasuna gogo lotua eukitzeko? Bizi nai zenduke oraiñ datozten menpean? Naiago det gudan jafaitu azken aŕtean, jakinda ere eriotza bilatuko detala amaia baño lenago. Euzkadi'ren aldezle zintzo il naiago det euzkotaŕ endekatu izan baño lenago. Zer derizkiogu?

—Egia diozu, baño, maite dizutelako esaten dizkizut nere biotz barneko naigabe une auetan sentitzen detana. Garbi agertu dirazu zure iritzia gudatzaz, baño, bilduŕ naiz geigo alkaŕ ikusiko ez gerala.

—Loretxo. Gauŕ ilunabaŕeko saŕtuko da paxisten gudaroztea eta nik euzko gudaroztearekin batera aldegin beaŕ det.

—Nik ¿zer egingo det?

—Oraindik etzaude nere menpean eta nik ezin aginduko dizut zer egin beaŕ dezun...

—Zurkin jungo ote naiz? Geratuko ote naiz? Zer egin beaŕ det, Yon? ¡Zoratu beaŕ zait oldoztu utzarekin arerio gudaroztea urian saŕtzean ikusi beaŕ ditudan ankeŕkeriakin!...

—Gurasoak geratzea naiko dute. Oraindik gaztea zera. Zeure buruan jabe izateko adiñik ez dezu...

—Zure gogoa beteaz geratuko naiz... Esan dirazu. Yon. Zer uste daukazu gudatzaz, irabaziko ote degu?

—Nere ustez irabazle izango gera.

—Zure uste oŕeri indaŕa emateko oñaŕirik agertzen ez dirazun bitartean... areŕioak auŕera eta gu atzeraka goaz.

—Izkilurik gabe ezin genezake egin, egiten degun baño geigo. Izkiluak egun gutxiren buruan etoŕiko dira eta orduan...

—Aspaldiko leloa, izkiluak ba'datoz, baño, ez det izkilurik ikusten. Ez ote zaudete atzipetuta?

—Etzaite bilduŕtu. Egun gutxiren buruan ikusiko dezu ez dutela auŕera egiten paxistak eta kontuan euki dezazu izkiluak etoŕi diran ezaugaŕia izango dala.

—Yon. Nola biziko naiz zure beŕirik jakin gabe?

—Nere beŕiak jakingo dituzu, ziurtasun ori euki dezazu, ba-da, ni ezin biziko naiz zuri beŕirik bialdu gabe...

—Zugasti onetan egin ditut nere amets zoriontsuenak. Zugasti onetan biotza lertu zorian negaŕ dagit. Guda amaitu ondoren zu eta ni bizi ba'gera, beŕiro zugasti onetan alkaŕekin lenbiziko jardun aldia. Zoragaŕia dago, ziñez, Yauna'k nai dezala beŕiz alkaŕ ementxe ikustea gurenda ondoren... Gure gurasoen itsumenak ez dauka neufirik. Zugasti au ere erdeldun baten izenarekin dago. Garaile ba'gera zugasti zoragaŕi oneri euzkotaŕ zintzo baten izenarekin zugatzatu beaŕ degu.

—Bai, Loretxo. Izen beŕia, euzkotaŕ jatoŕ batena. Euzko izakera biziko degu. Euzko gogoa euzkoen jabe izango da... Alkaŕen senar emazteak izango gera... Zoriontsu biziko gera eta amets auek guziak iriztekọ nola gudarozteratu ez ¿euzko abeŕtzale gaztea?

—Pozik nago, Yon. Abeŕtzaletasunaren alatzak, noski. Etzaite aztu, goiz aŕatsetan iru aguŕ Miren otoi egitea Arantzazu'ko Miren Neskutza'ri, gorde zaitzazun okeŕbide guzietatik eta zaitu deizun osasuna.

—Orobat, Loretxo. Zuk ere otoitz gure ametsa egitasun biurtu dedin. Etzazu negaŕik egin... Ez dezu ikusten maite dizutela? Zugasti onen oroimenak neri emango dizkiten kemenak ez du neufirik izango. Aguŕtu nai eta ezin... Gudaria naiz, ordea, abeŕia zai daŕkat eta jun egin beaŕ det.

—Aguŕtzeko eskari bat, Yon. Euzkadi eta Loretxo zure biotz barnean biak alkaŕi josita euki beaŕ dituzu.

—Bai, Loretxo. Zure naia beteko det bizi naizen aŕtean. Ondo ikusia dago gure arteko maitasun garbia. Oraindik alkaŕi lenbiziko muxua emateko gaude... eta gauŕko egun biotz beratasunak menperatuak gauden unean zer diozu?

—¡Bai pozik! ¡Baño ez! Gudari senti naiz eta nere bizitzan egin detan jauskain edo sakripizio aundiena egin nai det, baño, biok aburu batez nai izanik. Ez derizkiozu muxu ori gorde biotz barnean alkaŕi gurenda ondoren emateko?

—Loretxo maitea. Gerota geigo maiteago zaitut, ikusiŕik zure maitasun sakon ta garbia! Ez dute zapalduko zu bezelako emakumeak sortzen ditun lurraldea!... Ba' nua. Aguŕ, Loretxo, eta zugasti nere amets gaiak...

—Aguŕ, Yon. Zu bezelako gudari bulartsuak dauzkan abeŕia azkatasun diña da. ¡Gurenda egun aŕte!...

MENDI LAUTA

Aŕiaga, antzoki'ko ertilariak

Aspaldin zai egon da
iritxi zaizkigu
abeslari jatoŕak
entzuten ditugu,
aldra guziz bikaña
bilatu bai degu
Aŕiaga antzokia
oŕetxek bete du.

Eres antzerki oien
aŕtean geienak
dirade bai tankeraz
atzeŕitaŕenak,
etxean euki aŕen
gauz egokienak
saiatu gaitezen ba
erakusten denak.

Abots-zoli bikañak
abezperen onak
ertilari goi ekọ
gera euskaldunak
orlako zuzentzale
yayo dituztenak
nora nai jun litezke
laezkiz gabe denak.

Paŕa egin izteko
Ramalle ta "Whisky"
orlako bi arkitzen
zala dala noski,
beren esankisunak
doñu eta guzti
sortutzen dutelako
beti "Saski Naski".

Uŕezko abotsa ta
gorputzez liraña
doai oiekin bada
onena ainbat aña,
Berastegi Mirentxu'k
aundia du mañia
txaloka jartzen ditu
azpi eta gañia.

Zabalbeaskoa ta
Agiŕetxe'rekin
belaŕiak gozatzen
dira bi oiekin,
Lafakoetxea ere
Pepita Enbil'ekin
bikote bikañena
oiek alkaŕekin.

OTAŔTXO

Argi ta garbi

Bilbo'ko iŕat etxean "speaker" bat Gipuzko-eraz, naĵ litzakela mintzatzea ta beŕiak ematea eskatzen bada, ez da bertan, dauden gipuzkoaŕ-entzat, baizik an Gipuzko'an jtun eta beŕiak jakiteko egaŕi bizian daudenentzat.

Bizkai'ra etortzen diranak (eta Bizkai'koak bezela), alde guzietan beren zaletasuna agertzea, guztiz ederto dirizkiot.

Ez dizkiote atzean geatuko danik oŕetan, Naskaldija'ko eratzaleai!

Bakoitzak, bere izkuntza edọ bere tankerakoa naiago duela, ta atsegiñago zaiola, au ez da gaurko leloa.

Baña... atzeŕitaŕak eta gipuzkoaŕak, berdin jokatzen dutela, iritzi ta egotea, ez dirizkiot. Ori geitxo ez ote!...

"Bizkaitaŕa izatea, zoritxaŕa", zeñek dagio? Esker beroak eman beaŕean arkitzen gera, beraz ez da iñoren asmoa gañetikan jartzea.

Ta "belaŕimotzak" ez jakintzat artu, ta, iŕi egiten badiote bizkaiteraĵ, tamala da, gipuzkoaŕ anaiak oŕakoakin "konparatzja".

"Gipuzkoaŕ baten eskakixunari, ondo deritxagu", diyo; aja izanik, iaba lenbailen, asetzen degun gipuzkoan daudenen egaŕia.

Gipuzkoaŕ iŕat entzule bat.

AU, ORI TA BESTE

Franco'k españaŕik geyenak bere alde ba'ditu, zetarako bear ditu 75.000 erbestetar?-("Manchester Guardian")

Frantze'ren diru-goraberak.-Ez-beaŕa itxasoan.-Schuschning' en ibillerak.-Madrid'eko egoeria.-Amerikar ontziak arakatu?

AMERIKAŔ ONTZIAK ARAKATU

Londres.—Izpaŕingi batzuk diñoenez, Estatu Batuetako gobernuari, ango ontziak España'ratu baño len batzordetxo ker-tzeak ikusi dagiezan, izenburiko kalte-ordaiña eldu daitezala eskatu dautsa. Agindariak olako izpaŕ ori ez dala egia esan daroe.

EZ BEAŔA ITXASOAN

Londres.—Ramillies ingelandaŕ gudontziak maniobrak egiten ziarduala, Gibraltar'en zehar, bat-batean eztanda izan zan, barren goizean, eta iru mutil eta sugin bat zauritu ziran.

Gibraltar'era sartu zan ontzia, eta zaurituak gexotegira jaso zituen.

FRANTZE'REN DIRU-ARLOAK

Paris.—Frantze'ren aldeztzako diru laguntze edo malegua, astelenean, biarko da, Blum gobernuko lendakariak izpaŕkariei esan dautsenez.

Frantze'ren ekonomi-egoera geroz eta zeatz azalduaz, larunbatez, Blum jaunak itzaldia egingo dau.

Igandean, Erkaleko lendakariak esan dau deya egingo dautsa malegu ori berehalaxe estaduari lagundu dagion.

BERE ALDE GEIENAK ETA 75.000 ERBESTETAŔ GAIŃERA BERE LAGUN

Londres.—Españaŕ geienak Franco'ren alde dagozala diñue dirausku "Manchester Guardian"ek. Geienak bere alde izan ezkero Franco'k zenbaiteko dauz 75.000 italiaŕ ta alemandar gudari, guztiz ondo orniduaketa eta-aututetan ofen ikasiak, gudarozten ondo ornitzeka ta trebe ez diralako menperatuteko?

Suiza guda bildur

Franco'ren asaŕeak oñaŕirik ez

148 guda-ontzi baŕi

SUIZA GUDA-BILDUŔ-EDO

Paris.—Suiza'k bere mugak guda-ontzez ta guda-tokiz ornitzeko asmo dau ta ogei miloi pranko lan horretarako emon dagiezala eskatuko dautse suizaŕ Lateŕi'etako Artezkaritza Nagusiai.

148 GUDONTZI BAŔI INGELATEŔA'K

Londres.—Ingelateŕa'k 148 gudontzi egiten diñardu. Ingelandaŕ-Gudaritzea 89 miloi libra esterlina baiño lango kostatuko yako.

FRANCO'REN ASARE-AGIRIAK OŃARIRIK EZ EI-DAU

Paris.—Marruekos'en Frantzia'k protabilezan azpikeriak dirala-ta Franco'k bere asaŕea agertuaz "Ez sartze" Batzordea'ri" egin dautson idazkiak Frantzia'ko Erbestetaŕ-arazo Batzingoa'n urduri jaŕi dauz, len ezer esan ekien eta. Diplomatikoen artean berriol Frantzia'ko Gobernua'ri egiña dagoaŕen, ezin onartu daikela, agiri horretan diñozanak oñaŕirik ez dabela ta.

ASTURIAS'EN

Igualdia ondu dabenean joaldiak asi dira. Escamp'ero'n zear

IGUALDIA ONDU DABENEAN, GUDA-OINETAN GOGOTSU, ESCAMPLERO'N ZEAŔ

Gijon.—Gaurko eguna, be, goibel ta triste-tsari asi da. Laño ta zirimiria egun guztian izan doguz. Ez da izan giroño atsokua baizen txaŕa.

San Claudio'n dogu egunetan gudaritzea. Areriuak asko laŕitzen dauz bide ofetako zirlak. Minbera, be, minera yakoz alde ofetan efi-aldezleak egiten dabezan auŕerakadak.

Gauŕ goizean goizago asi dira pasatok lanean. Zez zan ango arutz ta ganutza ta gertakizuna...!! Gerotxoak magatzen asi dira. Kañoiekin ekialdi geŕatza egin dabe.

Kañoi asko ipiñi dabez alde ofetan ekialdezleak zuzitzeko asmoz-edo.

Ikaragaŕia izan da ango suagaketa ta dunbadotsa. Erkaldaŕen kañoiak, lastef asi dira arei erantzuten.

Goizeko saspiretan asi dan guda ikiñaldi ofek egun guztian erain dau areriuon auŕera-naiak eta su guzziak, alperi.

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Agiŕe jaunaren urtebetzea atzo.-Mendi ta basoetan efeturak egitea galerazi.-Lusagaŕa ereiteko.-Orio banaketa, astartean.-Jatetxietako saneuŕiak.-Edarizalekeri eta bulaŕetiko gexoaren kaltezko lanak.-Baseŕietako garbitasunaz.-Euzkadi'ren ordezkaria, Chicago'ko Osasun-Batzaŕean

Lendakaritza

Jardunaldia

Llano Encomienda buruzagiarekin jardun zuan Euzko-Jaurlaritza buruak. Luzea izan zan jardunaldia.

Geroxeago Jel-Alderdi'ko agintariarekin egon zan geure Agiŕe'taŕ Joseba Andoni Gobernu-buru jaun agurgaŕia.

Paxistaŕai iges egindakoak

Elorio-inguruan, "Amerika" taldeko kabu bat eta sei gudari igaro zirala geure artera esan zigun Jaurlaritzako iďazkari berezi Basaldua'taŕ Kepa jaunak.

Lendakari jaunaren urtebetzea

Atzo, lendakari jaun agurgaŕiak, urtebetetzea zuala-ta, zorion-agurrak ugari jaso zituan. Inglateŕa ta Argentina'ko konsulak ere biotz-biotzez bialdu zioten.

Izpaŕkariok ere geure zorion-agurrik suisuena agertu genion.

Egunari berea emateaŕen, etxean, sendikoaz batera bazkaldu zuan lendakari jaunak.

OROAINDUA

Otsailaren 27'gaŕenez Goi-Muetalari Batzordeak Lendakaritzari aurkeztu zizkion argibideak ikusiaz, eta 1936'gn. azaroaren 3gaŕeneko Oroaginduak diona beteaz Jaurlaritza osoak artu duan erabakia mamituaz, auxe agintzen det:

Atal bakaŕa.—Euzkadi'ko Jaurlaritzak, ondoren izendatuko diranei dituzten ogasun guziak deus ordaindu gabe kentzea erabaki du. Ona nortzuei: Arostegi'taŕ Karmele (Arostegi'ren alargunari) Feria'ko Markes izan zanari; Orovio Paternina'taŕ Miren (Montalvo'ko kondesa izan zanari); Arana Beaskoetxea'taŕ Lonore edo Lore'ri; Egidazu Brasac'daŕ Joseba Mirena'ri; Galindez Zabala'taŕ Imanol'eri; Ampuero'taŕ Bakarne (Lezama-Legizamon'en alargunari); Agiŕe Atxutegi'taŕ Toribi'ri; Gaytan de Ayala Ansotegi'taŕ Alexander'eri; Heredia Spinola'ko kondé izan ziranei; Urkixo'ko markes izan ziranei; Eskauriaza Ipiña'taŕ Juli'ri; Txuŕuka Zubiria'taŕ Ebaista (Motriko'ko konde izan zanari); Aznar Zabala'taŕ Joseba Koldobika'ri, eta Lasso de la Vega'taŕ Jenara'ri.

Bilbao, 1937'gn. epaiłak 4.—Bitarteko Jaurlaritz Lendakaria, AGIRE'TAŔ JOSEBA ANDONI.

Zuzentza ta Gogolantzea

Zigoŕa arindu-eske

Rugama ta Saens aldezle-itzlari jaunak, Diego Somonte ta Arturo Garcia'ri ezaŕitako epai-eriotza aldatzeko eskatzera joan ziran Zuzentza ta Gogo-lantze-Zaingo'ko arduradun jaun agurgaŕiarengana.

Eraŕeungo epaian emakumeai ezaŕitako zigoŕa arintzen diardutela esan ziguten Zaingoan.

Ikeŕak

Ikeŕak-ikeŕ izan zituan atzo ere Leizaola'taŕ Josu Mirena jaun agurgaŕiak. Ikeŕzaletatik aipagaŕienak onetxek dira: Teŕeiro, Obieta ta Aguado jaunak eta Laŕinaga anderea.

Aretxalde, Espetxetako zuzendari jaunarengana ere jo zuten beste ikeŕzale batzuk. Laŕinaga ta Karmelo'ko espetxeetako zuzendariak Aretxalde jaunarekin jardun zuten espetxe oietako beaŕen beŕi emanaz.

Lagintza

Agindua

Amilibia'taŕ Mikel Euzkadi'ko Guda-Ikaskintzan ikasle asi danez eta berak azaldutako zioak ontzat emanaz, lege-adizlaritzatik bere alde egitea ontzat artzen det.

Bilbao'n, 1937'gnko. epaila'ko 5'gnz. Langintza'ko arduraduna.

Lege-adizlari batek bereari utzi ta beŕi bat izentatu agindua

Neure lepo ditudan eskubidez, eta utsuneak eskatzen duanez, Zaingo ontako Lege-adizlari Lopez Sevilla'taŕ Endika jauna izentatzen det eta, leku ontan diraun artean, len Bizkai'ko Jurado Mixto Nagusi'ko idazkaritzan zeukan lekuari uko eginbeaŕean da.

Gizarte-arazoa eskuarteko zutela, Ikeŕak

ikerzale asko erdu ziran atzo Zaingo ontara.

Argazki-maŕazki ta zulo-ikuŕelako Erti-Etxe'ko banakaria. Euzko-Jaurlariaren lanak burutzeaŕen, zortzi ordutik kanporako ordu asko bete beaŕ izaten dituztela esan zuan.

Ibaŕez Betolaza'neko ordezkari Cruza jauna. Lanik-ezak larogei langile kale-goŕian ustera beartzen zuala.

"El Liberal"eko banakaria.

Adolfo Castaños jauna.

Izla'taŕ Josu jauna.

Nekazaritza

Abere-gaitzarekiko legea Agindua

Abere-gaitzarekiko Araudiak diona beteaz ondoren dasagun eŕi-inguruetan "karbunko bakteriaďino" gaitza zabalduta dagola jakin-erazo nai degu:

Arzentales: gaitzak jotako abereak.

Artu beaŕ diran neuŕian: Abereak bata besteagandik aldendu eta "karbunko" gaitzak jotako abereak il egin.

Ukuluak eta ukuluko ostontzeko tresnak ziatz-ziatz garbitzea.

Ikeŕak

Atzoko ikeŕak onetxek dira:

Matias Keledoni, Uribasteŕa'taŕ Joseba, Pradera'taŕ Domeka, Luyando'ko Banakari-Artezkaritza, Gorlitz'ko endorea, Arakistain'daŕ Martin, Sofikeła'taŕ Bernartin, Gatika'ko endorea.

Mendi-efetzearen aurkako neuŕiak

Ona emen Euzko-Jaurlaritzak Batzaŕean bigaŕenez burututako erabakiak:

Seigaŕen atala. Aize aundia dan egunetan, eŕiko aizea danean batez ere, mendira sua eramatea ta mendian su egitea, ziatz galerazota dago.

Zaspigaŕen atala. Eŕiaren mendietan sua egiteko beaŕa danean, ardura aundiz egingo dute eta beaŕ diran neuŕi guztiak artu.

Zortzigaŕen atala. Zugaitzez ornituta ďauden mendi ondotako etxeetan, eŕiko Udalaren baimen gabe, su egitea, galerazota dago.

Bederatzigaŕen atala. Nagusi baten mendi-ondoko etxeetan sua egin nai duanak, ogeitalau ordu aurez gutxienez, nagusiari edo mendiaren ardura duanari ta Udalak Mendietako Artezkaritzari jakin-erazo bearko ďio bereala.

Amargaŕen atala. Mendian sua ikusten duana, bereala eŕiko agintariai naiz ertzaiñai beŕi ematera beaŕtuta dago. Agintariak eta ertzaiñak suaren zioak bilatu ta aztertu bearko dituzte eta, al balitz, efuduna atxilotu.

Amaikagaŕen atala. Agintariak mendian sortzen dan sua asko zabalduko dan kezkarik baluteke, naiz sua dan mendian balio aundiko zugaitzak egon, bereala, al dan laisterren baseŕi ta inguruetako gauza diran gizon guztiak sua atzetzera beartuko dituzte.

Ortan jardutzen dutenai euren izenak artuko dizkiete ta lanean zenbat ordu bete dituzten ere bai gogoan artu, gero, dirutan, zor zaien ordaiña emateko.

Amabigaŕen atala. Auŕeroko atalak dion bezela, gauza diran gizon guztiak daude sua atzetzera beaŕtuta.

Saleroskeła ta Orniketa

Patata-aziak

Bi mila ta seireun toneladá patata artu ďogu eldu baŕi dan ontzi batek ekaŕiak. Patata ori azitarako, ereiteko izango da.

Astartean, orio banaketa

Oi dan era eta neufiz, ufengo martitzenez egingo dogu orio banaketa.

Banaketa ori, gero eta efezago egiteko agindu batzuk agertuaziko ditugu izpaŕingietan adionez.

Banaketa gegago

Ufengo banaketan, patata edo lusagaŕ, afoz eta azukerea bananduko ditugu.

Jatetxietarako saneuŕiak

Jatetxe merkietan zer janari eta saneuŕi izango dituen euren alkargoak adirazi dau Janari Zuzendaritza Nagusi oneri, eta saneuŕi egokiak ezaŕiko dituela.

Jatetxe eta ostatu andiagoetan zenbatean izan, saneuŕi ofetxek artuko ditugu oñaŕitzat.

Gizarte-Laguntza

Emokuŕak

Atzokoan batu ziran emokumen efeskadea. Daniel Robles, Bilbao'koa, 50 laufleko; Bermeo'ko Gizarte Lagintzako banakari eta enparaukoak, 41,50; Eŕi-zaiketa mutil batek, isunez, 275; Bilbao'ko jaun batek, 5; Pedro Xatruch, Bayona'koa, 25.

Osasun-zaingoa

Bulaŕetiko gexoaren kaltez

Bizkaya'ko Bulaŕetiko-gexo kontrako batzordearen txosten-idazkia irakuŕi euskun izpaŕkarioi Zaingo onetako burukideak.

Asmo ofetzaz lan dagien gexotegiak obatu eta ugarituteko iritziak dagoz bertan, eta aintzat artu eta egikoŕak diranik ezin uka.

Idazki ori zala-ta, Espinosa jaunak bere ustea azaldu euskun. Gaitz izugaŕi ori osatu ezezik, auŕetiaz lan egin gexo oren atzapaŕetan ez jausteko, orixe da bidea.

Osasun Zaingo onek elburu oretarantzekoak izango ditu bere alegiñak, Bizkaya'n gauŕ, eta biaŕ Euzkadi osoan, izuŕi zuri ori, tutaŕen kendua izan dedin.

Ainbeste bizitza galdu eta ainbat dira ondatu eraziten bai-dau gexo ofek euzkotaŕon artean, ortarako gexotegi ta osakayak ugari bear izaten ditugulako.

Ofegaitik, zure ustez, iñoan burukideak, jakintsuak eta aituak diñoenu oñaŕi dogula, sustaŕera jo beaŕ dogu gaitz oron izaera deuzeztuten alegin onuratsurik egitekotan. Gobernu'ko lagunak be irizkide izango ditudala deritzat, eta laguntasunik izango dogu asmo oneik bete daikeguzau.

Lagun geyegi bizi diran lekuak meaztu eta bananduago ipiñiko ditugu eta osasun-neuŕiak artu bizitzetan.

Edarizalekeriaren kaltez

Ofegaz batean, edari-zalekeriaren kontra be jo ta su astekotan gaituzu —geitu eban Espinosa'k—izan be, bulafetikoen sustaŕ, sari askotan, edarizalkeri orixe izan oi da-ta.

Lan au, ordea, ez da auntzaren gaberdiko eztula, goizatik gabera egin daikeguna, baña eŕiaren onerako izango da-ta, gertu al daiguna egiteko.

Baseŕietako garbitasun-lanak

Eŕixko ta basaurietan be, garbitasun arloarko lanak, egin eta egiten diardugu. Lexona, Ea eta Triano'n urak eroateko lofak egiten ari gara, lengoak oso egokiak ez zituela-ta.

Ofez ganera, basetxietan be, len baño ere baŕurago eta sakonago ekin beaŕ dautsagu garbitasun arlo onetan.

Zaingo onek, lan ofetan eragilko dau diruetaz euneko 25 ordaindu dau, eta ortarako 7.500.000 laufleko inguruen premiña izango dogu.

Onurak, urietara bezelaxe, basouri, basetxe eta azkenengo lugiñetarakoak izan daitezan, eta ofela eŕi osoarenak, ez dogu bertan gexorik egingo.

Iratzi edo kutsu gexoa

Uri onetan kutsu-gexodunen bat dagola, idazkia artu ďogu Zaingoan, eta alaxen bait-da, beaŕ dan neuŕiak artu ditugu.

Onelakoak adiraziaz karta ugari artuten ditugu, eta egileak euren izena ezaŕi beaŕ leukie idazkietan, bederik. Baŕi emonak mesede egiten dabe-ta, geure eskaŕ ona agertuteko izenak jakiten atsegin litzakigu.

Eŕiaren laguntasuna oso ontzat, eta nozik abere, arten doguna jakin bezate guztiak.

Osasun-Batzaŕa, Chicago'n

Geure eskubideen arauz eta, Euzko-Jaurlaritzak oniritziaz, Chicago'n izango ďan Osasun-Batzaŕean Euzkadi'ren ordezkari izan dedin, Ormaza'taŕ Jon sendagilea izendatu dogu.

Isuna, sasi-laguntzale bati

Orozko'ko seingintza laguntzale aizun bati eun pesetako multea ezaŕi dautso Osasun Zuzendaritza'k, aren aurkako salakuntzea egi izan baita.

Sasi-laguntzale eta antzekoak eŕiaren kalterako izaten dirana bein baŕiro jakin dagien guztiak, argitaltzen dogu baŕi auxe.

Janari eta esne beaŕeko gexoak

Astelenean, 1.501'tik 1.900'erakoak, eta 12.801'tik 13.000'era.

FRANKUAREN GORA-BERAK

London.—Ingalandaŕeko izpaŕingi gustiak oso ondo artun dabe.

Frantze'ko Gobernua'k prankua geratu eragiteko artu dabezan erabagijak diralako-ta. Onaz Frantzian onerako gauza aundijak izango dabezana autortuten dabe.

SCHUSCHING EROMA'RA UŔENGO ILEAN

Roma.—Frantze ta Inglateŕa'ko egunerokuak beztera diñoen aŕen, austriaŕ kantziller Schusching ezta Eroma'ra joango ufengo ilerarte.

Jofalean joango dala, "Piccolo" izpaŕingiak diño, eta ziurki esan be.

MADRID'EKO EGOERA

Madrid.—Havas izpaŕ-etxearen ordezari Jean Rollin'ek azalpen oneik egin ditu.

Biar baŕeko dira lau ilabete Madrid esi-baŕu jaŕi ebenetik. Egoera, ostera, zeaŕo aldatua dakust.

Miliciano diralakoak, gudari zeatz, azkar eta esangin biurtu dira. Atsedenaldietan gudari soil eta izardun agindariak alkartasun eta anai antzo jokatzen daben aŕen, sayoetan eta burukatzekoan, besterik egin daroe. Egokiro eta esangin egiñaz, guda jasadun dira.

Arauz eta malaka egindako sayoz, ondoren onuratsurik lortu dabe.

Axolakabe eta ausarditsuegi jokatzeak, kalte andirik egin dautse aspaldin eŕizalei, bañan orain, zur eta zentzunez diardue.

Uri onen zaintza eta gogortasuna ortxe datza: buŕukarien adore, egoki tasun, lotsa eta esangin izatean.

Guda-oñean eratsu, atzekaldean bare ta eratsu, oŕa Madrid'en gaurko egoera, ertzañak azkar eta egoki jardunaz.

TUNEZ'KO ORDEZKARIA

Paris.—Tunez'ko biztanle ordezkari ja atzo goixian eldu zan Paris'era. Onek Marsella'n egin ebazan azalpen bardiñan egin ebazan Tunez'ko oposari yoakenetik. Ezan ebanetik arin juango zala Tunez'era gora beraŕ konponduten.

BATZARA

London.—Gauŕ goxeko amaiketan batzartu da "ezetan ez sartzeko" Subkomitia. Batzaŕ onetan baŕuan diran Lateŕjan bayeskuntzak asterkatu dira, eta alemanak kontrolatzazko emongo ďaben zerga ikusteko.

Parkatu bańa...

Gipuzkoaŕ batek EGUNA'n egindako eskabide bateri bizkaitaŕ batek sekulako puŕuztadea egin dautso. ¿Ondo egiña? Ez, nire eretxiz txaŕto egiña, oso txaŕto egiña. Sekula be etxako anaya bateri ofelako ostikadarik emon beaŕ. Ostikadaka astekotan, kanpokoekin bai, etxekoekin egundo bez. Anaya batek eretxi okeŕ bat euki lei, bidezkoa eztan eskabide bat egin lei. Ba alan ba da, ez erantzun eta kitu. Edo erantzuna emon beaŕ dabenari eran tzuten itxi. Ez norberak, norberagan Alderdi gustia, norberagan jeltzaletasun gustia, norberagan aginpide gustia dagola uste izanik aga bat aŕtu, buru erdian yo ta zelayan ankaz gora itxi, berari emoten yakon zartadeagaz gipuzkoaŕ anaya gustiak minduta ta asaŕetuta itxirik. Ori abeŕtzale izatea ba-da, ni enaz abeŕtzalea, ni egundo be enaz izan abeŕtzalea. Ori ba da abeŕtzale izatea, nik eztot gura abeŕtzale izan, nayago dot txino zale izan, edozein gauzaren zalo izan, ez ofelako anaibakotasunaren zale izan.

Gipuzkoaŕ ofek egindako eskabidea auxe da: Gipuzkoa'n dagozan ifat entzule ixilezkoentzat, emeko baŕiak entzuteko egaŕituta dagozan Gipuzkoa'n aurkitzen diran gipuzkoafentzat, gipuzkeraz egin da gian bat ipiñi dagiela. Eztiño oraingo ifat itzegile bizkaitaŕa kendu dagiela: ez, olakorik eztiño.

Gudeak dakaŕen beaŕ izana da ori. Bestela ikusi. Gipuzkoa faxistapean yausi dan lez, Bizkaya yausi izan ba'litz eta gipuzkoaŕak Bizkai'ra etoŕi beaŕean aurkitu izan diran lez bizkaitaŕak Gipuzkoa'ra joan beaŕean aurkitu izan ba'lira, ¿ofelako disparate aundia, ofelako iraña izango ete zan bizkaitaŕak Bizkaya'n arerio pean aurkitzen ziran bizkaitaŕentzat bizkaverazko ifat-itz egile bat eskatzea? Ez, nire eretxiz. Geyago ondiño. Napar euzkeldun abeŕtzale asko, defigoŕean eroan da, ei-dabiltz faxista gudarien arteau. ¿Bizkaitaŕentzat iraña izango litzake napaŕ abeŕtzale batek ifats-etzetik napaŕeraz egingo leuken bat eskatzea? Gudea irabasteko bide ta era gustiak aprobetxau bear dira, zilegiak (lícitos) ba dira, ta ezin esan lei, ezta esan beaŕ, au atsegin yat ta bestea iguingaŕi yat.

Nire eretxiz orain sortu dan auzi oneri bere etoŕerea eretxi okeŕ batetik etoŕi yako. Geure geurekotasun izugaŕia da au zi onen ituŕburua. Onetan ba leiteke da nok efudun izatea, bai bizkaitaŕak eta bai gipuzkoaŕak. Etxaku ondiño buruan saŕtu ifadotsak eta izpaŕingiak (izpaŕingiak izkera batekoak, euzkelgi batekoak bañó geyagok irakuŕi beaŕ dabenean, orain EGUNA'rekin yazoten dan lez, ba bizkaitaŕ beste irakuŕle edo geyago gipuzkoaŕak be ba ditu), etxaku, diñot, buruan saŕtu ifadotsak eta izpaŕingiak euzkelgi gustitarikoak izan beaŕ dabela, "inter-dialectales" eta "inter dialectales" ezpa-dira, eurotan erabilten dan euzkerea, gustiak, neke aundi barik, ulertzekoak izan beaŕ daula.

Eztozue iñoiz entzun gure Eguzkitza, euzkeltzale bikañak, Afasate'n egin eban milagrua? Ba ara, Eguzkitza bizkaitaŕa dogu ta bizkaitaŕ onek Afasate'n egindako Euzkel-Egun baten txonitza edo sermoya euzkeraz egin eban eta entzule gustiak, bizkaitaŕak, gipuzkoaŕak, arabaŕak, naparraŕ eta Bidasoaz andiko euzkeldunak dan-danak gustiz ondo, oso ondo ulertu eutsoen. ¿Milagrua? Ez, or eztago milagrorik, euzkeltzale bikain baten trebetasuna bañó.

Beraz, ba, edo "interdialectal" edo euzkelgi bakotzekoak bestekoak baizen errukubide dauko bere euzkelgia (alan bere gudako arazo gafantzitsuetarako) erabili daitela eskatzeko, baj ifa lotsez ta baj izpaŕingiz, ezetarako be yaramon egin barik lekuari, eŕiari edo ifadotsa ta izpaŕingia dagozan edo egiten diran tokiari. Ofetan eztago karabiñerotasunik. Karabiñerotasuna beste gauza batzuetan dago.

BIZKAITAŔ BATEK

EGUNA JEL

Lgo. urtia | 57'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. epaila 7'gna. igandea | 15 eunen

Eŕi batek bere izkuntzea galdu ba-dai, beste eŕi baten jopu egin dalako izango da.-Eta ik, jopu dan eŕiaren semea izan nai dok?

BAKE BILLA

LOCARNO'KO TRATADU BAŔI BATERI BEGIRA DAGOZ BAKE-ZALE DIRAN EŔIAK

卐 卐 卐

Inglateŕa'ren bake gogoei jaramonik ez

卐 卐 卐

Londres.—Inglateŕa dei ta dei dabilan aŕen beste eŕiak jaramon gitxi egiten dautse. Lokarno'ko Tratadua izenpetu ebenei orain ile batzuk zuzendu eutsen idazkia oraindik erantzun gabe dagola-ta baŕiro gogoratu dautse, orduan egiten zituzan itaunei erantzuteko eskatzen.

Eŕiak baña oraindik eztabe erantzun eta erantzuteko gogo gitxi agertzen dabe. Bakearen alde ez ete nai dabe izenik emon?

Esanak esan Alemani eta Itali'k euren afotasun, bakaŕtade eta zitalkerian jaŕaitzen dabe.

Eta bakearen alde gogo gitxi agertzen dabe.

Eurok antxiñakoen esakera egokia gogoratzen dauskube.

"Esanak edeŕ, egiñak landeŕ."

Loftuko ete dau Inglateŕa'ren diplomaziak eŕi zaratatsu ta naste-zale bi onek bakearen magalera eruaterik?

IBILLI TA IBILLI...

Otto, Austria'ko errege-gaya italiar errege-alaben atekin ezkondu ta rregetzara igongo ete da?

SCHUSCHNINGG

Schusnigg Otto'ren aide. Alemani asarre

Europa Erdigideko aueten baiña alkar atxumurka be, egiten dautse. Zoriontsuko Austria'k zitaltzen dauskuz gure mutikuok Hitler eta Musolini.

Garilean egin zan itunbenak Austria Alemania'ren kutun egingo ebela uste zan eta alkaŕekin artuemon baketsu ta biozkoŕetan ipiñiko ebazala alkartze oŕek. Ao bete egiñagaz laga dabe Alemania baiña. Alemania'ren ustez Schuschnigg Mussolini'ren esanei ta asmoei beaŕ baiño jaramon geiago egiten dautse.

Bakalzaleen oraintsuko goragorakak, Otto Eŕegegaia italiaŕ eŕege - alaben batekin ezkondu ta eŕege aulkirako ete dan maŕmaŕ ta zurumuruak min damotse Alemania'ri. Habsburgotaŕak Austria'ko eŕege izateŕik ez dabe nai izan egundo, be, Alemania'n eta nazitaraz gitxiago. Oŕa Almania'ren eta Austria 'ren adizkidetasuna zirikatzen daben arantzea.

Von Neurath zuŕumuŕuak kezkatuta

OTTO

Schuschnigg'en gana agiritu egiteŕa joan da. Gero ostera Schuschnigg gudalburua Roma'ra Alemania'k esan dau tsezanen jakitun Mussolini egiten.

Alemania ta Italia alkaŕen kezkatan doguz ta Austria bion erdian zeiñi eldu ez dakialarik, erdi-tataŕez.

Ogasunei begira gudea aztu barik eta berari begira

Lortuko ete dau Frantze'k diru-ondamenditik garaitsu urtetea?



Blum'en erabagiak

Paris.—Frantze'ko Gobernuak, Blum mai-buru zala, erabagi gogorak aŕtu ditu ondamenditik urteteko.

Frankoa tipo batean ipintzu erabagi dabe.

Inglateŕa'ko izpariŋgiak pozez aŕtu dabe erabagi ori ta Frantze'ren zori ona ikusi gura dabela argiro erakusten dabe.

ALEMANI'REN ASMOAK

Txekoeslobaki'ri begira dabil aspaldi onetan, eŕi oŕetan bere lur-gosea asetu nayean

Txekoeslobakitaŕak zur eta gertu

Ogetamairu urte bete ebazan atzo, Euzkadi'ko lendakari agurgaiak



Agiŕe'taŕ Joseba Andoni, Euzkadi'ko lendakari zintzo ta zuzenak ogetamairu urte bete zituzan atzo.

Ori dala-ta iparkariok aguŕ egitean maitasunez eta ta egunari yagokon eran aŕtu ginduzan.

Zorionak lendakari agurgaŕi!

Alemani'ren asmoak. Txekoeslobaki'ren ostea zur eta zeiatari ipiñi

Txekoeslobaki'ren gain bere erpak botako ete zituzan zabaldu danean txekoen abeŕtzaletasuna mindu ta gogoŕki agertu da.

Masaryk Txekoeslobaki soŕtu eban gudalburu ospatsua iñoiz baño goralgaŕiago gogoratzen da. Benes bere jaŕaitzaleak zindoki jaŕaituko ditu asmoak. Alemani'ren asmo oŕek ezta u abegi onik soŕtu europaŕ eŕien aŕtean. Eta Estadu batzuk Alemani'ren aufka biziro jarkiko litzakezala uste da olakorik gertatekotan.

Hitler'en guraria beteko eztiranik oindixek esan lei.

Txekoak euren azkatasuna zaintzen zindoki jakingo dabe.

INGLATE RA'N LABORISTAK NAGUSI AUTESKUNDIETAN

Garaitza onek gobernuan indarrik egingo ete dau?

Londres. — Laboristak loŕtu daben garaitzea andia da. Izpariŋgirik geyenak euren aufka euki ditue ta ori dala-ta etzan uste ainbeste kontzejal ataŕako ebezanik. Laboristak 75 ataratea loŕtu dabe eta konserbadoreak 49'gaz geratu dira.

Auŕerako auteskundetatik ona laboristak bederatzi iŕabazi ditue.

Egunotan auteskundeak ospatuteu zirala-ta, Londres'ko kaleak jentez beterik ibili dira. Egun oŕeitan laboristak zindoki eta suteu jokatu dabe. Idazkun andiak eŕabili ditue eta orma ta egal gustiak eurokaz beteta ikusten dira. Eurotan irakuŕi jei: **Laboristei emon zeure autaŕkia. Oŕela eginaz españa eŕepublikaŕei lagunduko dautsezu.**

Eta antzekoak.

Garaitza onek Goernua kilin - kolon laga dau ta jausiko ete dan zalaten dabil.

Sevilla'tik Mar - Marka

London.—Gauŕ zabaldu dira Sevilla'ko iŕatsaiotik anker batek dako azalpenak.

Oldaŕketa aundijak jaurti eutsazan Inglateŕa'ri, eta ezan eban Inglateŕa'k Valencia'n daben ordezkarija marxistia dala. Baita ezan eban, Inglateŕa'k Almeri'an daben ordezkarija, Largo Caballero bere baño be, marxistiagua dala. Onek abere onen ingalandaŕan aurkako azalpenak asaŕe aundija soŕtu dabe. Batez be eŕiketazale aŕtian